

Juan Garmendia Larrañaga

Udako festak

Javier Juanes-ek irudiztatua



18

Juan Garmendia Larrañaga Bilduma

1999. Udako festak / Juan Garmendia Larrañaga. - Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua, 1999. - Euskera, castellano, francés e inglés

2006. Fiestas de verano = Udako festak / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Miscelánea II* . - (Euskal Herria. Etnografía. Historia. Juan Garmendia Larrañaga. Obra Completa ; 9) . - Donostia : Haranburu Editor, 2006. – Castellano, euskera

2007

Udako festak / Juan Garmendia Larrañaga ; azala eta argazkiak Javier Juanes. - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007. - 97 or. : ir. - (Juan Garmendia Larrañaga Bilduma ; 18). – ISBN : 978-84-8919-110-0

Itzulpena

Euskararen Normalkuntzako Zuzendaritza. Gipuzkoako Foru Aldundia

Azala eta argazkiak

Javier Juanes



EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES

Institución fundada en 1918 por las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra.
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia - Tel. 943 31 08 55 - Fax 943 21 39 56
Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.org

Fotokonposaketa: Michelena artes gráficas. Astigarraga
Digitalizazioa eta argitalpen elektronikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin

Udako festak

Juan Garmendia Larrañaga

Orria

Kredituak	
Aitzinsolas gisa: festetarako arauak	5
Orexa eta Santakruz jaiak	7
Legazpi eta Santakruz jaiak	9
Oiartzungo olagizonen dantza	15
Bedaioko Harri Jaia, kazkabarra gogoratzuz	18
Aldabako San Antonio jaia. Harria	18
Corpus Christi	19
Corpus Christi egunean ardiei ez zaie ilea moztu behar	23
Tarasca mamua	24
Erraldoiak	27
Buruhandiak	31
Txistularia	34
Txistulari zaharraren oroimenez	41
Dantza	44
Udako solstizioko erritoak. San Joan Bataiatzailea	51
Donostiako San Joan arbola	62
Amezketeta (Adarra jo)	64
Elduaien	65
Elgetako San Joan arbola (Larrabilziarra edo Larrabiltzear auzoa)	66
Orio. Sanjoanak	68

Erreteria. Baserriko ospakizuna	70
Tolosako bordontzariak	72
Alardeak	74
Hondarribia. San Pedro Arrantzale Kofradia. Uztailaren 25eko Kutxaren Jaia	82
Ordizia. Santaneroen aureskua	84
Debako Sanrokeak	85
Auzo Eguna (Arantzazu, Oñati)	89
Hondarribitik Urnietako Ebanjelioetara	90
Zezen festa	90
Zezenak	96

Negu gogorak iges egin du
Udaberrik bultzatuta.
Loretegitan agertu dira
Landare alek apainduta.
Laño-goibela goyen zeudenak
Dijuaz denak uxatuta¹.

Neguko festak lanaren hitzaurrean aipatu nuen bezala, lan honek ere ez du Gipuzkoako jaien gida liburu izan nahi –baditugu beste argitalpen batzuk horretarako, urtetik urtera ugariago–. Balio antropologikoren bat dutela uste dudan ospakizunei erreparatu nahi izan diet. Asmo horrek bultzata ekarri ditut orri hauetara zenbait herritan ikusitako jokabide batzuk, oroimenean nonbait gordeta bizirik iraun dutenak, zenbait. Erantsiko dut ez diodala udako egutegiari jarraituko nire lanean, horrek ilundu egingo bailuke nire eginkizunaren ikuspegi osoa.



1. Aldabe'tar Jokin: Gernika. Al servicio del Humanismo Vasco. 15. zk., apirila-ekaina 1951, 147. orria.





AITZINSOLAS GISA: FESTETARAKO ARAUAK

Asko samar idatzi da hiri edo herri handi samarretako ospakizunetz; oso gutxi, ordea, biztanle gutxi duten herrietakoez, batzuk hiribildu izaera eman zitzaien baino lehenagotik datozen ospakizunak izan arren. Horregatik, esku artean dudan gai honi begira eta, bide batez, **Orexa eta Santakrutz jaiak** atalari sarrera emateko, interesgarria deritzot honako dokumentu hau orri haue-tara aldatzeari.

«1775. urtea – Lizartza, Gaztelu eta Orexa hiru herrietarako erabakitako arauak, festa nagusiak Lizartzan irailaren 8an, Gaztelun abuztuaren 15ean eta Orexan maiatzaren 3an nola egin behar diren esaten dutenak.

Lizartzan, mila zazpiehun eta hirurogeita hamabosteko otsailaren hogeita bian batzarrean bildu ziren Martin Lorenzo Artola, Orexako parrokiako erretore jauna, Agustin Areizaga, Gazteluko parrokiako erretore jauna, eta Juan Jose Ormaetxea, hemengo, Lizartzako parrokiako erretoreorde jauna, Gregorio Ezketa, aipatu dudan herri honetako parrokiako apaiz jaun onuraduna, Sebastian Mugerza, herri honetako alkatea, Martin Mintegiaga eta Joan Bautista Mendizabal, bertako errejidoreak; (...), aipatutako Gaztelu herriko alkatea eta (...), hango errejidoreak; (...), aipatutako Orexa herriko alkatea; (...), hango errejidoreak.

Esan zuten, goian aipatutako hiru herri horietan, urteko festak deritzaienak ospatzen dituzten garaian gertatutako gehiegikeriak eta gehiegikeria horiek agintariei, herritarrei eta biztanleei dakartzkien kalteak bezalakorik gehiago gerta ez dadin, hiru herri horietako pertsona guztiak jakinaren gainean jarrita, honako hau erabaki dute eta agiri honen bitartez, beren gisara eta beren izenean eta ordezkartzarekin erabaki ere:



Gaurtik aurrera goian esan diren hiru herrietan, aipatutako (...) jai egunen ospakizunak jaietako lehenbiziko bi egunetan bakarrik egingo dira, eta, horretarako, izendatutako hiru herrietako alkateek nor bere herritik kanpora bidali behar ditu eta bidal bitza danbolinteroak festetako bigarren gauan, eta hirugarren egunean ezingo dute danbolin eta danbor jole lanik egin aipatu diren hiru herrietan, inon.

Hiru herri horietako alkateek ezingo dute egin, oraindaino egin izan duten bezala, festetara etorritakoei egin ohi zaien gonbita, pertsona edo herritar bezala eta nahi dutenaren bitartez ez bada, horrela ez dezaten nozitu alkatea eta gonbidapen orokorra direla eta egiten den gehiegizko gastua, eta pertsona partikular bezala gonbidatu nahi dituenen ere bazkari nola-halakoa eman biezaie, ohitura duten bezala hegaztirik eman beharrik izan gabe. Alkatearen andrea ere gauza guztietan eta gauza guztietarako Alkate jaunak esan bezala konpon bedi jaietako bigarren egunean egin ohi duen gonbitean (...), esandako hiru herri hauetan, eta gonbit horietan joka beza pertsona partikular bezala eta Alkate jaunentzat esan den neurriz. Hamar pesoko zigor zorrotza ezarriko zaio hiru herrietako edozein alkate edo bestelako pertsonari, baldin agiri honetan agindutakoaz bestelako ohitura edo berrikuntzaren bat sartzen ausartzen bada, aldi batean. Eta, erabaki hau zehatz-mehatz bete dadin, Gipuzkoako probintzia txit noble honetako korrejidore jaunari eskatuko diote hori berretsi eta onar dezala, eta Berari egokiena iruditzen zaion Autoa emanaraz dezala, ezarri den zigorra eta egoki iruditzen zaizkionak ezarririk. Hala erabaki zuten batzarrean bildutako aipatutako jaunek, eta izenpetu zuten zekitenek. Eta nik, Tolosako Hiriko Erregeren zenbakidun eskribau honek, sinestarazten dut eta lekuko naiz esandakoa erabaki dutela, eta, batzargileak ezaguturik eta horren guztiaren fede emateko, izenpetu nuen (...). Nire aurrean: Pedro Lazkano (sinatua)»².

2. Gipuzkoako Artxibo Orokorra PT-IPT. 492, 89-91 orriak.




OREXA ETA SANTAKRUTZ JAIK

Gure orografian barrena han eta hemen barreiatuta dauden mendiko herrien artean, hego-ekialdean dagoen Oresa gutxien bisitatzeko eta ezagutzen denetakoa bat dela esan genezake.

Herri txiki honek, ikustean, Eguberrietako Jaiotza bizia dakarkigu gogora. Hango isiltasuna eta bakea, koipe egarri ziren gurdien ibilerak urratzen zituen oraindik orain arte; guk geuk bizi izan dugu iragan hori. Oresan ohikoak dira belarretan lasai bazkatzen den behorrak lepotik zintzilik duen zintzarriaren hotsa eta belardietan harkaizño zuri mugikorrek iruditzen zaizkigun ardiak bee etengabea. Nonahi ugaritzen ari diren pinudi ilunek, ordea, ikuspegi eder eta idiliko honen alderdi goibela ekartzen digute begietara.

Muino baten gainera, eliza herriko bizitzaren erdigune izan da. Eskailera piko batzuk daude plazatik hara joateko.

Hemen, Oresan, jaio zen XVIII. mendeko azken hamarkadan Montes apaiza. Berea da “*Enterado, - Montes*” (“Hartu dut, - Montes”) esaldi famatua, gutun bat hartu zuela jakinarazteko erabiltzen zuen formula laburra, eta bere zuzendaritzapean jarriak izan ziren gaur oraindik ikus ditzakegun zenbait eguzki erloju. Eliz gizona izateaz gain, matematikari bikaina eta musikari jakintsua zen Montes apaizari eskainia dio lan bat gogoan dudana nire lagun Antonio Maria Labaien zenak 1958ko *Egan* aldizkarian.



Udalerrri honetako semea zen Nikolas Ormaetxea *Orix*e ere. Bizitza ikasteari eman zion gizon honek gutxik adinako euskarari buruzko jakintza lortu zuen.

Orexan, maiatzaren 3ak, Gurutze Santuaren Idorokundeak jai etena ekarzen dio eguneroko lan bizitzari. Herriko festak dira. Meza Nagusia, haizkolaria eta bertsolari trebea izango dira, noski, jaietako egitarauan goiza osatzen.

Arratsaldeko lehen orduetan, jaki gozo eta ugariz hornitutako mahaian bazkaldu ondoren, herriko neska-mutil talde txoek herriko plaza hartuko dute eta, ume batzar labur bat egin ondoren, lotsati eta herabe hasieran, zalapartari eta ausart gero, erroskila saltzailea inguratuko dute, hura *Bata, bia, hirua...* kantari ari dela, dakienaren grazia eta erraztasunez jokoko kartak banatzen dituen bitartean.

Txistulariaren saioa eta Ingurutxo nahi eta nahiezkoak ziren garai batean jai hauetan, baina, tamalez, Ingurutxo deritzan dantza oroipena besterik ez da gaur: herri honetako oroipen gero eta ahulagoetako bat besterik ez.

Eguna iluntzean, mailoetako harkaitz soilen babesean arrasgorriak bilzen gaituenean, eta garai batean *inpernuko auspoa* zen soinuaren notak doinu eta erritmo ezagunetan heltzen zaizkigunean, Orexako herri noble eta leialeko plazara etorriko dira bidezidorretan barrena mutilak festarako gogoak piztuta eta neskak igandeko soinekoak jantzita. Dantza hasi da, festa ez da bukatu.

LEGAZPI ETA SANTAKRUTZ JAIK

Diotenez, Legazpi burdin gainean sortu zen.

«Horregatik, ez da harrizkoa Legazpiko giza asentamendua burdingintzari zor zaiola tradizioak esatea (...). Olagizonen eta baserritarren artean izandako hainbeste eta hainbeste auzitan, honako hau aurki daiteke: 'Legazpi lehen-lehenik olagizonek sortu zuten eta kristaurik izan ere ez zenean, jentilek burdina egi-ten zuten'»³.

“Hiri hau (Legazpi) dagoen ibarrean antzina-antzinatik bizi da jendea, eta ez dakigu noiztik eta nola hasita. Herri xumearen tradizioak dio Jesukristo etorri aurretik bazela, eta uste horrek indarra hartzen du jentiletxe eta jentilola izena gorde duten eraikin eta olen aztarnak badirela ikusita”⁴. Gauza jakina da –dio

3. Ignacio Arbide Elorza eta beste batzuek: *Ferrerías en Legazpi* (Legazpiko olak). Arg.: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala. Donostia –1980–, 19-20. orriak.

4. Pablo de Gorosabel: *Diccionario-Geográfico-Descriptivo de los Pueblos, Valles, Partidos, Alcaldías y Uniones de Guipúzcoa* (Gipuzkoako herri, ibar, barruti, alkate herri eta elkarteen hiztegi historiko, geografiko eta deskribatzailea) - Tolosa. Pedro Gurruchagaren inprimategia –1862–, 273-4. orriak.



Julio Caro Barojak– Euskal Herrian olagizonak folklore misterioitsua izan duela inguruan eta burdingintza jentilen lantzat hartua zela⁵.

XVI. mendean Legazpin hogeita bost ola nagusi zeuden, horien artean Mirandaola, 1952. urtean Patricio Echeverria Elorzak berregina. Mirandaolak eskaintzen duen osotasunaren ikuspegiak gurearen aurreko menderen batera garamatza. Hura ikustean irudimenak ihes egiten digu gure Herriko lan bizitzaren iraganean barrena. Ez dakigu noiz egina den ola hori, baina bada 1580an lanean ari zela frogatzen duen agiri bat. Izan ere, urte horretako maiatzaren 3an, Santa Krutz egunean, Mirandaolako lantegian lan egin zuten, jai egunetan lanik ez egiteko ohiturari jaramonik egin gabe. Egun hartako lan guztiak burdinezko gurutze bat besterik ez zuen eman. Gurutze hori burdinolaren inguruan dagoen kaperan gordeta dago, eta hor azaltzen zaigu gaurko egunean Legazpiko hirian Santa Krutz ospatzeak zer genesi duen⁶.

Izan ere, igande eta jai egunak gorde, zorrotz gorde izan dira gurean, batez ere baserri giroan, eliz aginpide eskudunak bestela egiteko baimen berezirik eman ezik behintzat. Gai horri buruz kontatu zidaten Latasan Aldatzen gertatua omen zen beste hau: herriko gizon bat igande eta jaiero bere haizkora txikia aldean zuela ibiltzen omen zen. Hil zen gizona, eta haizkora

5. Julio Caro Baroja: *Los vascos y la Historia a través de Garibay* (Euskaldunak eta historia Garibairen esanetik). Lehen argitalpena. Txertoa arg. -1972-, 27. orria.

6. Tradizio elizkoiaren baitako gertaera horrek Manuel Lekuonak *Del Oyarzun antiguo* (Antzinako Oiartzun) liburuan dakarren narrazioa dakarkit gogora, biek oso bukaera ezberdina duten arren. (*Del Oyarzun antiguo*. O.C.T. 5, 248-9. orriak).



eskutik kentzeko eginahalak egin arren, ezin izan zuten, eta bere lanabesa eskuan zuela lurperatu behar izan zuten⁷. Gai horren bertzio bat baino gehiago badira gure elezahar gordailuaren aberasgarri.

Ez dut ekonomiaren indar baldintzatzailea bazter utziko. Burdinolan, hala ere, ez da guztia produkzio izan, ez da dena zenbaki hotz hutsa izan. Horren atzean beti egon da gizona, lan-tegi haiei buruzko azterlan batzuetan ia ezkutatua dirudiena, bigarren mailara alboratua, ia ahaztua dagoena. Jasota ditudan Bizkaiko Ibarako burdinolari buruzko ohar batzuek honela diote: 1828ko otsaila. “Karmengo limosna, 14 erreal”. 1830eko urtarrila. “Olako suginei Karmengo fraidearen limosnarako”.



7. Latasan: Angela Barberia Goikoetxea. 52 urte. Aranzadi etxea. 1988ko uztailaren 27an.





Kontakizun polita delakoan, ohar hau ekarriko dut hona:

“Gaurko egunean –1830eko abenduaren 6an– jornalean dabiltzan nire lau langilek (lau langile sonatuk) –Bizkaiko Ibarako burdinolakoak– lauza bat nire etxetik (...) ehun bat oinkadan eraman behar zutela eta, anda gainean hartu ez dute, ba, Moctezumako enperadorea bailitzan? Eta, haien lotsagabekeriaz eta alferkeriaz txundituta, lauza pisarazi dut eta ez zen zortzi arroa ere. Beraz, gero, langile haie-tako batek erraz eraman du bakarrik (...), lehen lauren artean zeramaten”.

Olagizon edo gabi arotzek ospatu ere urteak zekartzan gertakari gogoan-garriak ospatzen zituzten. Legazpin gogoan dute oraindik nola olagizonek *kapela dantzan* parte hartzen zuten.



“Kapela dantza burdinoletako ordezkari ziren hemezortzi peailleek (olako ofizialek) burdinolako lanean erabili ohi zen kapela jantzita dantzatzen zuten aureskua zen”⁸.

XVII. mendean Legazpin maiatzaren 3ko ezpata dantza 20 edo 27 dantzarik egiten zuten.

“Jaia sortu zenez geroztik, dantza herriko plazan ez ezik, eliza barruan ere, elizkizunetan, egiten zen. Hori argi erakusten du elizan dantza egitea debekatu zutela eta 1750ean Iruñeko apezpikuari bidali zioten erregeru batek, non eskatzen baitzen antzinatik zetorren ohitura, maiatzeko eta iraileko Santa Krutz egunetan Jaunaren aurrean dantzatzekoa, gordetzeko”.

“Dantzariak gastu handiegiak zekartzatela etsirik, 1706tik aurrera, bazkariak kendu eta ardo pitxerrak, erabaki zenez 12, ematen zizkieten, egiten zuten lan laburraren ordainez nahikoa zutelakoan. Horrek ezpata dantza egunean bitan besterik ez zela egiten pentsarazten digu”.

XIX. mendean Legazpiko dantzetan aldaketa handi bat hasi zen, Angel Murua Iñurritegiak dioskunez.

XX. mendean Gurutze Santuaren Idorokundearen jaietan, ezpata dantzaz gainera, *gizon dantza* eta Gipuzkoako beste dantza batzuk egiten ziren.

“Maiatzaren lauan, Santa Krutz txiki egunean kapela dantza izeneko bat egiten zen. Dantza hori, oinarrian, gizon dantza edo aureskua da (...). Behin kapela dantza plazan egin ondoren, soka osatzen zuten guztiak handik irten eta kalerik kale ibiltzen ziren dantzan eta saltoka (karrika dantza) (...).

XIX. mendearen amaieratik gurearen erdi aldera arte, etengabe jarraitu zuen dantzak (...).”

8. Ignacio Arbide Elorza eta beste batzuek: aip. lana, 71. orria.



Gure 50eko hamarkadan hasita, dantza alde batera utzi zen, harik eta 1975ean, Sustraiak izena duen oraingo taldeak, aurrekoen lekukoa harturik, dantza berreskuratu duen arte. Berrito itzuli da maiatzaren 3 guztietan dantzatzeko ohitura⁹.

OIARTZUNGO OLAGIZONEN DANTZA

Tirauki tauki tauki, mailuaren hotsa oraindik belarrietan dugula, beste olagizon batzuk agurtuko ditugu, beren giroan.

Hemen emango dudana erreferentzia hau lehen aipatu dudana Manuel Lekuonaren liburutik hartua dut.

“(…), Olagizon edo gabi arotzek, hala deitzen zitzaizkien Oiartzunen burdina lantzen zutenei, gremio egokia osatzen zuten Santiagoren eta San Migelen zaindartzapean. Haien zutoihala eta Kofradiaren kontu liburua oraindano parrokiako sakristian gordeta daude. Jende famatua behar zuten izan gabi arotz haiek, beren patroien egunak nola ospatzen zituzten ibarreko tradizioetan gogoratzen baita gaur egun ere. Horietako batek dioenez, Santiago egun batean, urte hartan lanean ari ziren hamahiru burdinoletako urtzaileak Iturriozko plazan bildu ziren *zortzikoa* ateratzera”¹⁰.

9. Legazpiko Santa Krutz jaieko ospakizunean dantzarien jardunari buruz jaso ditudan Angel Murua Iñurritegiri hartu dizkiot *Legazpiko festak eta dantzak* izeneko azterketa ongi dokumentatutik. Lan hori, berriz, Jose Mari Urcelay Urcelay gure historiaren ikertzaile bikainaren adiestunari esker ezagutu dut.

10. Manuel Lekuona: aip. lana, 247. orria.



Olagizonak, gainera, musika eta dantza irakatsi dizkio aldamenean izan duen ikazkinari. Ikazkina eta olagizona, neurri handi batean, elkarren mendean bizi izan dira, nola lan gogorraren garaian, hala festako tenorean. Hala esan digu Orixek *Euskaldunak* poeman:

Zaldabeen ari da Goldaraz'ko Otxana,
Uharte'koan noizpait ikazkin izana;
bertsotarako ez du txarra gogoâna;
bizkai-dantzaz ba daki jakiteko dana.

Sugin otxandiarrai zitien ikasi;
berak egiñak ere or zituen, nahasi;
etzan bela atertuko asten bazan asi...
beso-miak baiño len oiñak nekarazi.



BEDAIOKO HARRI JAIA, KAZKABARRA GOGORATUZ

Bedaion, eta berdin Aldaban, laneko egunerokotasuna eteten duen ospakizun hau harriaren kalteak uxatzeko egin ohi zen arao batetik sortua da, araoa egiteko eguna jai bihurtuta.



Garai batean, Nafarroako muga dagoen Tolosako Bedaio auzoan, hiru urtez jarraian, sekulako kazkabarrak egin zituen Igokunde egunaren (ostegunez izaten da, nahiz azkenaldian hurrengo igandean ospatzen den) hurrengo ostegunean, eta izugarritzko kalteak baratze eta soroetan. Hori ikusirik, hain oroipen txarreko eguna aurrerantzean jai izatea erabaki zuen auzoak. Geroztik, Bedaion aurrekoen nahia betetzen dute. Egun horretan, meza nagusia, bazkari-afari bereziak, eta frontoian trikitixa izaten dira. Bedaiotar batzuek bazkaria frontoira eraman ohi dute, eta ardoa herriak jartzen du. Orain urte batzuk, bertako Zumitzketa baserriko Juan Antonio Sarasolaren txistuak alaitzen zuen kazkabar erauntsiak oroitarazten dituen Harri Jai hau¹¹.

ALDABAKO SAN ANTONIO JAIA. HARRIA

Aldabako jai honen sorrera arestian aipatu dugun Bedaiokoa bezalakoxea da.

11. Tolosako Bedaio auzoan: Josefa Antonia Agirrezabala Zabala. 67 urte. Bedaio Bitartea etxea. Dimas Zubeldia Jauregi. Zumitzketa baserria. 1993ko maiatzaren 25ean.

Aldaban San Antonio egunean, ekainaren 13an jai izaten da. Arrazoa, zenbait urtetan urtero egun horretan kazkabarrak kalte handiak eragin zituela. Behin eta berriz gertatu zitzaizen ezbehar hori zela eta, baserri guztiek hainbesteko bana jarrita, harriaren aurkako arao gisa, meza ateratzea eta egun horretan aurrerantzean jai egitea erabaki zuten.

Meza ondoren bazkaria egiten da, auzoko familia guztietako ordezkoren bat behintzat bertan dela. Orain urte gutxi arte, erromeria egiten zen plazan soinuarekin.

Ramon Larrañaga laurogeidun aitona kontatu zidan nola behin, ekainak 13 zuen batean, bertako Arizmendi baserrikoek meta bat egin zuten jaija errespetatu gabe, eta meta hori tximistak erre zuela¹².


CORPUS CHRISTI

Corpus Christi eguneko jaija Trinitateko igandearen hurrengo ostegunean ospatu izan da orain dela urte gutxi arte, baina azkenaldian hurrengo igandera atzeratu da.



12. Tolosako Aldaba auzoan: Jose Aldalur Jauregi, 82 urtekoa, Lopetegi baserrikoa. Pio Ermanalde Larrañaga, 61 urtekoa, Elizondo etxekoa. Ramon Larrañaga Azurmendi, 86 urtekoa, Muñozabal baserrikoa. 1993ko abuztuaren 22an.





Gorputz edo Besta Berri eguna ospatzea, oro har, Beranduko Erdi Arotik datorren ohitura da. Urbano IV.ak ezarri zuen 1272an bulda bitartez.

Batzuetan, egun horretako prozesioetan indar armatuek parte hartzen zutela eta, eskumenen gaineko tirabirak izan ziren. Hori ongi ikusten da *Extracto de consulta del Consejo Real sobre debates entre la Diputación del Señorío de Vizcaya y la Villa de Bilbao* dokumentuan (*Bizkaiko Jaurerriko Aldundiaren eta Bilboko Hiriaren arteko eztabaidei buruzko Errege Kontseiluko Kontsultaren Laburpena*)¹³, hor ageri baita zernola eztabaidatu zen Bilbon Gorputz eguneko prozesioa nola egin behar zen.

Hainbeste urtetan bizi izan dudan *Corpus Christi*-ko prozesioak, ibilbidean barrena toki jakinetan aldareak ipinita izan ditu, eta zoruan botata zenbait motatako belarra; horrenbestez belar hori bedeinkatua gelditzen zen. Herri batzuetan, gorde egiten dute udako solstiziooko sua egiteko, horrela sua ere bedeinkatua izateko.



Gure egunetan kaleko erlijio erakuskari haietako asko historia bihurtu dira. Ez, ordea, Oñatikoa; han Gorputz eguneko prozesioa, lehen ostegunean egiten zen arren azken urteetan hurrengo igandera aldatu dena, antzinako distirarekin egiten da orain ere.

Ignazio Zumaldek, *Historia de Oñate (Oñatiko Historia)* liburu goresgarrian, zor zaion garrantzia ematen dio Gorputz eguneko jaiari:

“*Sakramentu Santuarena. - Apostoladokoa* izenez ezagutua. Historiaren kontra joan nahi ez duenak ez dezake hitz egin kofradia honetaz Oñatiko Corpus

13. Euskal probintziei dagozkien zedula, erregeren pribilegio eta enplega-gutun, errege agindu eta bestelako dokumentu batzuek osatzen duten bilduma. II. liburukia. Bizkaiko Konterri eta Jaurerria. Madrilgo errege inprimategian. 1829. urtean.



Christi eguna aipatu gabe, egun horretako prozesioa Oñatiko erlijio bizitzaren erakuskari nabarmenena baita”¹⁴.

Zumaldek xehetasun guztiak ematen ditu prozesioa deskribatzerakoan, baina ez deritzot egoki dena hona ekartzeari.

Historialari horrek *Oñate* monografian, VIII. kapitulua “Gorputz eguna” izenburuarekin hasi ostean, honako iruzkin didaktikoa egiten du lehenik:

“Oñatiko erlijio erakuskari aipagarriena Gorputz eguneko prozesioa da. Sakramentu Santuaren Kofradiak, *Apostoladokoa* deitu ohi zaionak, 1553an izan zuen sorrera kanonikoa. Berak eusten dio bizirik prozesioaren tradizioari eta apostolu bizidunekin eta dantzariekin prozesioan parte hartzen du”¹⁵.

Erantsiko dut Oñatin Corpus Christi egunean egiten diren *Korpus dantzak* deritzaienek honako izenak dituztela: *San Migeli erreberentzia* eta *San Sebastianen zortzikoa*; *Banakoa*, *Launakoa* eta *Zortzikoa*, *Jera-jera* eta *Makil dantza-ekin*; *Arku dantza*, eta *Aurrekua*¹⁶.

Corpus Christi egunean ez zaie ardiei ilea moztu behar

Nire berri emailearen aitona, Ignazio Zubeldia Zubeldia, Bedaioko Elizetxe baserrian bizi zena, ardiei ilea moztu beharrean gertatu omen zen. Lan horri Gorputz egun batean ekin zion eta, lana bukatuta, ardirik ederrena askatu eta libre utzi zuenean, modurik harrigarrienean, zeharo belztuta gelditu omen

14. Ignacio Zumalde: *Historia de Oñate* (Oñatiko historia). Gipuzkoako Foru Aldundiaren argitalpenak. Probintziako inprimategia. Donostia, 1957. 552-553 orriak.

15. Ignacio Zumalde: *Oñate* (Oñati, monografia). Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala. Donostia. 1970. 55. orria.

16. Izen horiek Juan Antonio Urbeltz koreografo ospetsuari eskertu behar dizkiot.

zen. Artzainak, hori ikustean, aurrerantzean ardiei ez ziela ilea Gorputz egunean moztuko besterik ez omen zuen esan¹⁷.



Tarasca mamua

Corpus Christi eguneko prozesioan erraldoiek eta mamuak jai kutsuko eginkizun alegorikoa bete izan dute, eta berdin ohiturak seinalatutako eran eta tokian parte hartzen duten dantzariak ere.

Mamuaz diren deskribapenak bat datoz gauza nagusienetan. Hala, Manuel Larramendik bere hiztegian dio: “*Tarasca*, mamua. Sugearen irudia, Gorputz eguneko prozesioan ateratzen dutena”. Espainiako Akademiaren gaztelaniazko hiztegian¹⁸, 1826an Parisen argitaratutakoan, hauxe irakurri dut: “*Tarasca* (mamua). Jai jakin batzuetan atera ohi zen suge irudia”.

Madrilgo Gorputz eguneko prozesioan ere urte askotan atera zuten mamua, eta hango 1835eko egun horretako prozesioaz honela dio Mesonero Romanosek:

“Urteak igarota, gaur egun ere gure artean ospe handienarekin egiten da Gorputz eguneko jai, eta Madrilgo hiriak hori ospatzeko egiten duen prozesioa,

17. Tolosako Bedaio auzoan: Juan Zubeldia Zubeldia. 78 urte. Elizetxe baserria. 1992ko maiatzaren 10ean.

18. *Diccionario de la Lengua Castellana por la Academia Española* izena du.

XVII. mendean bezalako maiestate eta ohorezko ordenari jarraituz egiten da (...), nahiz eta komunitate eta pertsonaia gutxiagok laguntzen dioten, eta zenbait ikur-irudi barregarri ere kendu zaizkion, mamu eta erraldoi deritzatenak eta beste batzuk, oraindik ere Espainiako herri batzuetan gordetzen direnak, eta frantsesen gerraren aurretik Madrilén ere erabiltzen zirenak.

Mamua (*la tarasca*) beti prozesioaren aurretik joaten zen suge irudi bat zen, Jesukristo gure jaunak deabruaren gainean izan zuen aintzazko garaipena irudikatzen zuena modu mistikoan. (...). Frantziako Tarasca hirian, honako tradizio hau dago: Santa Marta bazter haietara iritsi zelarik, herrialde hartan hondamendia eta samina sortzen zuen mamu haragijale *Tarasca* izeneko bat gailendu eta giltzaperatzea lortu zuen. (...), Madrilgo Artxiboko kontu liburu zahar batean, honako hau irakurri dugu partida batean: Gorputzeko prozesiorako mamuaren gastueta-rako 1.400 erreal¹⁹.

Hori Corominasek bere hiztegi etimologikoan dioenarekin lotzen dut, berak esaten baitu *Tarasca* zeritzaiola Tarasca-sur-Ariège ondoko baso batean bizi izan zen elezaharretako dragoi bati (...).

“Monrealek deskribatzen duenez, *Tarasca* -azaltzen du Ricardo Palmak- kar-toizko mamu bat zen, Lebiatan deabruaren sinboloa, amarruz prestatua zuen lepo uztaiduna ustekabean luzatu eta erne ez zeudenei kapela kendu eta jendea-ren barre algara artean irensten ziena”.



19. Ramón Mesonero Romanos: *Escenas matritenses del Curioso Parlante*. 1851ko berrargitalpena. Curiosa arg., Bartzelona. 1983. 85. orria.



Ricardo Palma aipatu dudanez, perutar idazle horri irakurria diodan Limako esaera zahar hau gogora ekarriko dut, ez dakitenaz iritzia ematen dutenez honako hau esaten duena: “honek erraldoien antzera hitz egiten du, brageta zulotik”²⁰. Zirritu horretatik irteten da, izan ere, erraldoiaren egitura osatzen duen zurezko edo kartoizko armazoiaren barruan doan gizonaren ahotsa.

Jose Maria Iribarrenek dioenez, Iruñeko Udaleko XVI. eta XVII. mendeetako kontuetan badaude Gorputz eguneko prozesioan hiriko erraldoiak eramaten zituztenen eta mamua gidatzen zutenen ordainagiriak²¹.

Hurbil gaitezen etxera. Gorosabelek adierazten duenez, antzina, dantzariak, erraldoiak, mamua eta *Domingillo* deritzana ibili ohi ziren prozesio honetan –Gorputzekoan, Tolosan– (...), baina han ere debekatu egin ziren hain irudi edo panpina barregarriak, eta baztertuta gelditu ziren. Gainera, Gorputzetan ezpata dantzak izaten ziren –jarraitzen du Gorosabelek–, eta askotan Valentziatik dantzariak ekartzen ziren, prozesio aurretik dantzan joan zitezten²².

20. Ricardo Palma: *Tradiciones peruanas* (Peruko tradizioak). Espasa-Calpe, S.A. arg. Madril. 1936. V. liburukia. 226. orria.

21. Jose Maria Iribarren: *De Pascuas a Ramos. Galería religioso-popular-pintoresca*. 2. argitalpena –1970– Iruñea. 131. orria.

22. Pablo Gorosabel: *Bosquejo de las Antigüedades, Gobierno, Administración y otras cosas notables de la villa de Tolosa* (Tolosako hiriko antzinako gauzen, gobernuaren, administrazioaren eta beste gauza aipagarri batzuen zertzeladak). Tolosa. Mendizabalen alargunaren inprimategia. 1853. 288-289. orriak.

Tolosako Udal Artxiboan jasota dago XVII. mendearen hasieraz gerotzik dantzariak izaten zirela Gorputz eguneko jaietan.

Jai horretan erakutsi ohi ziren erraldoiak aipatuta ageri dira 1677. urtean eta hurrengoetan. Udal artxibo horretan ezagutzen dudan 1778ko ekainaren 29ko ohar batean ere Gorputz jaietarako erraldoi eta mamu berrien prezioaren ordainarazpena aipatzen da.

Mamuak agerkari erlijiosoak adierazten duenaren kontrako esanahia darama berekin.

Carlos III.ak emandako errege zedula baten bitartez, Corpus Christi eguneko erlijio ospakizunetan mamua agertzea debekatu zen.

ERRALDOIAK

Behin baino gehiagotan aipatu ditudan erraldoiak hainbat tokitako festa ospakizunetatik bereizezinak dira. Herri askotan ezagutzen da erraldoien kalerik kaleko ibilera alai eta ikusgarria.

Erraldoiak non eta nola sortu ziren mitologia oparoaren gandu artean dago. Jainko semeak giza alabekin nahastean sortuak bide dira erraldoiak eta hortik datorkieke noski erraldoi izatea. Uste denez, erraldoien eta Jupite-





rrren arteko gudua Tesalian gertatu zen²³, eta Etna sumenditik irteten ziren kea eta garrak Tifon erraldoiaren arnasa zirela uste zuten antzinakoek, Dante Alighierik dioenez²⁴.

Mundu errealerara gehixeago hurbiltzeko, esan dezadan erraldoiek irudikapen eta sinbolismo zabala eta ugaria dutela. Batzuen ustez, nekazaritzan oinarritutako ekonomia zaintzen zuten sumertarren jainkoak duintasunez irudikatu nahirik egindako irudi garaiak daude erraldoien jatorrian. Eta aurrea duenak atzea duenez, ildo horretan erantsiko dut, uzta txarra zela, izurria zela, ezbeharren ondorioz erraldoiak erre izan dituztela.

Erraldoiak garai bateko Corpus Christi jaieko ospakizunekin eta gaur egungo herri askotako festekin lotzen ditugu.

Ignazio Balezenari irakurrita dakigu 1657an Tolosan erraldoiak egin zituztela Iruñerako. Idazle nafarrak gaiari dagokion bizitasunarekin dioskunez, 1657 aldean, Frantzisko Azpillaga zeritzan herritar zintzo eta baikor bat bizi zen Tolosan, bere aberriko historia loriatsuko orri mordoxxa betetzeko dina inondik ere, mundu triste honetan pertsona hilkor dohakabeen bizitza alai-

23. Dante Alighieri: *Jainkotiar komedia*, XIV. kantua. (*La Divina Comedia*, E.D.A.F. liburutegia. Madril. 1963. 6. deia, 95. orria).

24. Dante Alighieri: aip. lana, VIII. kantua. 15. deia, 451. orria.

tzeko eginkizuna baitzuen, erraldoiak, buruhandiak eta beste antzeko lan serio batzuk eginez²⁵.

Erraldoiek gozamina eta oroipenak ekartzen dituzte; gozamina umeei eta oroipenak nagusiei. Txistuak edo dultzainak lagun, eta buruhandi, nano edo *txorimaloak* inguruan, erraldoiak kalerik kale dantza arinean ibiltzen dira alaitasuna zabalduz, irakurleak beharbada ikusiko zituen bezala. Halakoa da gure herriko erraldoi eta buruhandien agerkaria; izenez ezagutzen ditugu eta dei egiten diegu, eta gure komunitateetan txertatuta daude.

Iruñeko erraldoi eramaileek honako formula hau dute: “Lehenbizi, hamarretako ederra egin; gero orekaz dantzatu”²⁶.



25. Ignacio Baleztena: “Comparsas de gigantes y cabezudos” (Erraldoi eta bauruhandien konpartsak) in: *Navarra. temas de Cultura Popular-3* (Nafarroa. Herri kulturako gaiak-3). Nafarroako Foru Aldundia. 12. orria.

26. José María Sedano Laño: *Vitorianos de Cartón, Gigantes, Cabezudos y Gargantúa. Historia de una comparsa* (Kartoizko gasteiztarrak, erraldoiak, buruhandiak eta Gargantua. Konpartsa baten historia). 107. orria.



BURUHANDIAK

Herri batzuetako festetan atera ohi diren erraldoien desfile airosoez aritu naiz arestian. Orain, mitologia grekoarentzat haien ume nanoak direnak ekarriko ditut gogora. Nanoak, izan ere, gure kaleetan festa giroa zabalduz jendea zirikatzen ibili ohi diren buruhandi geldigorrek direla bururatzen zait.

Nanoak lur azpiko izakiak dira, *Ilunaren Herrian* bizi izaten direnak; baina ilunaren erresumatik zuhaitzen barruko eskailetan barrena irten eta *Argjaren Zelaira* iragaten direnean, pertsonaia bihurri bilakatzen zaizkigu, buruhandi jostailu bihurtzen.

Erraldoi eta buruhandiak festetan murgilduta ikusten ditugunean, irudi-menak gehienbat urteetan atzera eramaten gaitu, gure haurtzarora itzultzen gara, eta buruhandiak nola ustekabeen agertzen zitzaizkigun gogoratzen dugu: poza baino beldurra handiagoa nola sortzen ziguten, on aurpegiko batek edo bestek izan ezik.

Gure herriko buruhandiak trebeak ziren behi aziendaren baten maskuriaz jendea jotzen. Gogoan dut *Karapastel*, ez gatz ez berakatzik ez zuena, eta gogoan ditut *Berrugas* eta *Kasero*, bata gaiztoa bazen, bestea okerragoa zirenak. Ez zaizkit ahazten Berrugasen aurpegi eta keinu zakarrak, ezta Kaseroen musu hotz eta ezer adierazten ez zuena. Horien ondoan, ordea, han izaten zen *Charlot* maitekorra, haur jendearen zalaparta axolagabeari samurtasunaren ukitua ematen. Charlotek ongi hartzen zituen ingurura zetozkion umeen poz-erakutsiak eta bere betiko bastoia eskuan, hiriko dultzaineroen edo txistularien ahairera mugitzen zen.



Egin ditudan aipamen horiek ez dira oroipen sorta bat besterik: besteak beste, dagoeneko urruti dugun haurtzaroan sustraiak dituen begiratuia.

Erraldoi eta buruhandiak herritar bihurtuak ziren, bada, beren herrietan, baina ez ziren hargatik herriko mugen barruan soilik ibiltzen. Beren lanari emanak izaki, herriko mugak gainditu eta beste herri batzuetara ere eramaten zuten festaren alaitasuna, haiek hala eskatzen bazuten.

“Billabonako (Gipuzkoa) Hiri Noble eta Leialeko alkatea

Herri honetako Jai Batzordeak egindako eskaerak bultzata, aurki ospatuko ditugun Santiago festak hasteko, Udal horrek dituen erraldoiak eta buruhandiak utz diezazkiguzuela eskatzen dizut. Festak bukatutakoan alkate honen bulegoa arduratuko da horiek atzera itzultzeaz.

Jainkoak luzaro gorde zaitzala.
Billabona, 1931ko uztailaren 15a
Alkatea.”

“Billabonako (Gipuzkoa) Hiri Noble eta Leialeko alkatea

Herri honetako Udalak, atzo egindako bileran, Udal horri bihotzez eskerrak ematea erabaki zuen, gure herriko festetarako erraldoiak eta buruhandiak uzteko erabakia hartu zuelako.

Jainkoak luzaro gorde zaitzala.
Billabona, 1932ko abuztuaren 4a
Jarduneko alkatea: Federiko Urdapilleta (izenpetua).”





“Tolosa Hiriko Udaleko alkate-lehendakari jaun txit prestua.

Nik, Jose Letamendia, Alegiako hiriko alkatea naizen honek, bertako Udalaren izenean eta ordeztuz, Tolosako Udal Batzarrari, begirunez eta errespetuz, adierazten diot:

Gure herriko festak aurki ospatuko direnez, eta herritarrek hala nahi dutela adierazi dutelako, Karmengo Andre Mariaren jaiak alaitzeko Udal horren erraldoi eta buruhandiak utz diezazkiguzuela eskatzera natorkizu. Eskatu bezala uzten badizkiguzue, Udal hau arduratuko da herri horretatik hartu eta bere garaian bertara itzultzeaz, eta zerbait hondatuko balitz jaun prestu horrek agintzen duen bezala konpontzeaz.

Hain jokabide zuzena duenarengandik eskatutakoa lortuko duelakoan, bizitza luzea opa dizu,

Alegia, 1936ko uztailaren 1.a. Sinatua: Jose Letamendia (izenpetua)”²⁷.

TXISTULARIA

Lan honen izenburuari leialtasun apur batez erantzutekotan, ezin oharkabean pasa txistularia. Ez ditut, hargatik, dultzaineroak ahazten, ez nire herriko, Tolosako, dultzaineroak eta ez Azkoitiko Miramonte baserriko Sodupe familiakoak, gaur dagoeneko historiaren zati direnak, besteak beste.



27. Tolosako Udal Artxiboa. Billabonako Udalaren eskaera egiteko eta eskerrak emateko idatzien data ikusita (1931ko uztaila eta 1932ko abuztua) esan liteke bi idatzien artean beste eskaera bat ere izan zela, hura ere ontzat emana, baina ezin izan dut ikusi.



Hona 1734an Andoaingo danbolinteroak Anoetako herriaren alde onartutako betebeharra:

“Anoetako Hirian 1734ko apirilaren 11n. Ni, Tomas de Angel Ventura, zenbakiko eskribaua naizen honen eta behean izendatuta dauden lekukoen aurrean, paratu dira, alde batetik, Martin Munita (...) Anoetako hiriko alkatea, Joan Bautista Munita eta Andres Etxeberria errejidoreak eta Martin Arano Etxeberriakoa, herriko sindiku diruzaina, eta, beste aldetik, Pedro Elosegí danbolinteroak, Andoaingo herritarra. Eta, esan zuten, elkarrekin konpondua eta adostua zuten Pedro Elosegí aipatuak danbolintero lanetan herri honi eta bertako plazari zerbitzu egingo diola eskritura honen datatik hasita bederatzi urtean, eta lan horretan, ohitura den bezala, txistua eta danbolina joko dituela herriko patroik San Joan Bataiatzailearen jaietan, ekainaren hogeita lauan urtero izaten direnetan, bezperatik hasi eta hirugarren egunera arte (...) bera joan ahal izanda, eta ezin izanez gero, gaixo dagoelako edo antzeko beste ezbeharren batengatik, bere ordeztu beste danbolinteroren bat bidali beharko du, eginkizun horretan gai dena, eta lan horrengatik herri honek, eta bere ordeztu bertako sindiku diruzainak, Pedro Elosegí aipatuari edo bere ordeztuak, ordainetan, lau dukat zortzinako hamabinako errealekoak emango dizkio eta, gainera, bere gastu eta mantenua, laugarren goizetik gosaria barne. Eta hiru egun horien ondorengo laugarren eguna igandea egokituz gero, egun horretan ere Pedro horrek San Joan egunean eta hurrengoetan bezalaxe jo beharko du, eta egun hori ere herriak ordainduko dio, despeditzean gosaria emanda, esan den bezala.

Horretaz gainera, bi aldeak baldintza jarri dute aipatu den Pedro horrek herri honi zerbitzu eman behar diola premia sortzen den eta herri honek deitzen dion guztietan, aitzakiarik jarri gabe, eta lan horrengatik ordaindu behar zaiola edo nahierara eman gizalegez merezi duena eta zuzena dena. Eta esandako Pedro horrek, guztiaren jakinaren gainean, betebeharra onartzen duela eta bere burua



eta bere ondasun higigarri nahiz funtsezkoak betebehar horren mende jartzen dituela esan du, eta beste aldeko jaunek ere goian esandakoaren mende jarri dituzte herri honetako ondasun eta errentak”²⁸.

XVIII. mendetik irten gabe, 1734tik 1788ra pasatuko naiz. Tolosan soldatapean aritzen zen txistulari baten kontratuak urtean zehar zer jai izaten ziren jakiteko nahiko ikuspegi osoa ematen baitigu.

Honela dio eskriturak:

“1.- Aipatutako Hilarion Bengoak (horrela zeritzan soldatapeko musikaria) alborada jo behar du Urte Berri egunean eta herri honetako patroï San Joan Bataiatzailearenean, herriko kontzejukide guztientzat.

28. Gipuzkoako Artxibo Orokorra. 2637. paper sorta. 1734. urtea, 50. orria.

2.- Errege egunean, Aingeru Goardakoarenean, maiatzeko Santa Krutz egunean, Igokundekoan, Gorputz egunean eta haren zortzigarrenean, eta Santa Ana eta Loiolako San Ignazio egunetan prozesiora joan eta jo behar du. Aingeru Goardakoaren bezperan kalerik kale xirula jo behar du, goizeko hamaikak aldean.

3.- Gorputz egunaren bezperan eta San Joan Bataiatzaile egunaren bezperan Bengoa horrek kalerik kale danbolina eta txistua joz ibili behar du, ohiturak agintzen duen bezala.

4.- Jai goizetan kaleetan barrena txistua joz ibiliko da Bengoa (...), eta arratsaldeetan plazan joko du elizkizunak bukatzen direnez geroztik otoiitzeko kanpaia arte.

Inauterietako hiru egunetan eta Lardeo ostegunean, goiz eta arratsalde, kalejira.

5.- Justiziako eta Errejimenduko kargudun berriak hautatzeko egunean, Bengoak alkate jaunari lagundu behar dio zin egiteko ekitaldira. Egin behar duen bidea Kontzeju Etxetik parrokiara, handik alkatetzari uzten dion alkate izandakoaren etxera, eta handik, berriz, alkate izendatu berriaren etxera.

Arratsaldean alkate berriaren etxetik aipatu den elizara eta, gero, Bezperak eta Errosario Santua amaitzean, Nafar Atea deitzen zaioneraino, auzo alkateen zin egitera eta handik Plaza Zaharreko Kontzejura.

(Agiriak aipatzen ez duen arren, hurrengo deskribapena San Joan bezperakoa da, zalantzarik gabe).





6.- Gainera, txistulariak alkate eta agintariei laguntzen joan behar du Kontzejutik parrokiaraino eta, bezperak bukatzean, San Joan Bataiatzailearen elizako konpletetara. Hurrena, *funtziorik baldin badago* plazara eta, bestela, Kontzejura.

7.- San Joan egun goizean, musikari soldataduna parrokiara joango da agintariekin eta, gero, alkateari etxera lagunduko dio. Arratsaldean, alkate jaunarekin eta *bordon dantza* egingo dutenekin elizara joango da. Bezperak bukatzean, Arrameleko San Joango konpletetara. Handik plazara eta, dantza egin ondoren, Igarondoko zelaira, han berriz egiten baita. Gero, herrira itzulita, kalejiran, dantzariak pordon dantza egiten dute alkate jaunaren etxe aurrean”²⁹.

Lan hitzarmen horrek zabal azaltzen ditu musika jolearen beste betebeharrak ere. Udal Batzarra biltzean jo behar zuen; errege pragmatikak eta aginduak jendeari zabaltzean ere bai, baina honelakoetan txirula; baita Pazko igande goizeko prozesioan, ondoren alkatearen etxe aurrean eta Gurutze Santuaren Kofradiako maiordomoenetan jotzen zen alboradan ere, eta abar eta abar. Erantsiko dut kontratuan argi eta garbi jasota dagoela “Hilarion Bengoa aipatuaren jokabideak kexurako motiborik txikiena ematen badu, herriak bota” egingo zuela.

Bestalde, udaletako diru sarrera eta irteeretan, ez da zaila honelako idazpenak aurkitzea:



29. Gipuzkoako Artxibo Orokorra, 601 zk. prot., 1056-9. orriak, atz.



Belauntzako hiria. 1846 eta 1865 artean. “Bertsolari eta danbolinteroei ordaindua, San Joan egunetako lansari gisa, herriko festetako ospakizunetan ari izan zirelako, ordaintzeko aginduaren eta ordainagiriaren arabera, 32 erreal”³⁰.

Txistua baino zaharragoa da danborra, ohartarazi zuen Aita Donostiak³¹. Hector Berliozek dio *Memoriak* lanean:

30. Belauntzako Udal Artxiboa.

31. Aita Jose Antonio Donostiakoa: *Historia de las danzas de Guipuzcoa, con sus melodías antiguas y sus versos* (Gipuzkoako dantzen historia, beren doinu zahar eta bertsoekin). Itxaro-pena arg. Zarautz. 4. orria.



“Xirula txikia, xirula eta gitarra (...). Bestelakoak jotzeko ez nuen inoiz trebetasunik izan, baina horiek oso aintzakotzat hartzeakoak direla deritzot. Eta ez, ez diot dena aitortu neure buruari, danborra ere jotzen nuen eta³².”

*Mi abuela tiene un cabrito
dice que lo matará,
del cuero hará un tamborcito,
lo que suene... Sonará.*

Amonaren antxumea
aurki omen da hiltzeko,
haren larruaz danborra,
zer joko duen... auskalo”.

Ipuin zahar bateko astoa datorkit burura. Hainbeste lan egiteaz eta hain gaizki tratatua izateaz asper-asper eginda zegoenez gizarajoa, hiltzeko desiratzten omen zegoen bakean lasai gelditzeko. Hil zen, halako batean, astoa. Haren larruaz danbor azalak egin zituzten, ordea, eta ez zuen, hil eta gero ere, patxadarik eta sosegurik izan.

Txistulari zaharraren oroimenez

Bedaiko baserri baten inguruan, urteko makina bat ilunabar eztitan, txistu baten notek jentilen eta sorginen garaietara daramakigute irudimena.

Sarasola txistulari zaharrak jotako doinuak ziren Zumitzketa baserriko etxebizitza bateko leihotik ihesi heltzen zitzaizkigun haiek. Gaurko gure munduan xarma berezia sortzen dute.

32. Hector Berlioz: *Memoriak* I-. (*Memorias*, Taurus SA arg. Madril. 1985. 24. orria).



Juan Antonio Sarasola 1887an jaio zen baserri horretan. Eguzkiak belztutako aurpegi hura gogora datorkit. Begirada adierazkorra zuen, apur bat gorantz egiten zion sudurra, eta gorputz sendoa, handia izan gabe.

Txistua den bezain musika tresna soil horrekin, Arribeko Alfontso Juanbeltzen ikasle izandako Sarasolak eszenatoki natural askotan –eszenatoki naturalak baitira baserri giroko herrietako plazak– jo zuen mende erdian baino gehiagoan.

Haren ahaire alaien doinura dantzatu ziren artzaina eta baserritarra, eta haren txistuaren erritmo nabariari jarraiki dantzatu zuten ingurutxo Bedaion, Abaltzisketan, Amezketan, Orexan, eta beste herri batzuetan.

Juan Antonio Sarasolak *eskola zaharreko* txistulariak ezagutu zituen, hala nola Azkarateko *Arbitarra*, Nafarroako Gaintzako *Arresti* eta Intzako *Domingonekoa*, baita beste txistulari ikasiago eta akademikoagoekin harremanak izan ere; beraz, trantsizioko txistularitzat har genezake.

Ongi mereziak ditu maitasunezko oroipen lerro hauek bere hurkoen bizitza edertzen eta alaitzen berea eman zuen gizon honek. Juan Antonio Sarasola 1983an hil zen.

“Pertsona bakarraren ongizatea mamitu duenak esan dezake bere bizitza ez dela alferrikakoa izan”, esan digu Pascalek.



DANTZA

Azken lerroetan mintzagai izan dudanetik urrundu gabe, txistuak eta danbolinak lagunduta, sar nadin dantzari eskainitako atalean.

“Garai hartan musutruk ere ez zuten onartuko dantzari kapitainak eskatutako doinu zaharrak jotzen ez zekien danbolinterorik. Herri batean dantzari taldea sortu nahi izanez gero, nahikoa zen hiru-lau egunetarako danbolinteroren bati deitzea. Txistulariek kontu handiz zaintzen zituzten dantzariak eta arreta handiz begiratzen zuten dantzan hasten ziren bakoitzean. Horretarako beharrezkoa zen danbolinteroak bere lana ondo egiten jakitea”³³.

“Ezda sortu eta asmatuco ere euscaldunentzako oslancai edo instrumento pozgarrigaroric, nola diraden damboliña eta chilibitua”

dio Iztuetak. Eta Zaldibiko koreografo honek esaten duenez, Gipuzkoako herrietan txistulari eta dultzainero asko zeuden:

“beragatik izan da orube edo suelo maitagarri au beti, ain jostatia eta pozcarria; ala lan egunetan mendi, eche atari eta basoetan, nola jai guziaz plaza agiricoetan”³⁴.

Kontsultatu dugun obra horretan, Iztuetak hogeita hamasei dantza motaren berri ematen du “Gipuzcoatarren beren-berenkic, zein bere soñu eta



33. Aita Jose Antonio Donostiakoa: aip. lana, 4. orria.

34. Juan Ignazio Iztueta: *Viejas Danzas de Guipúzcoa. Gipuzkoa'ko Dantza Gogoangarriak*. 1. argitalpen elebiduna. La Gran Enciclopedia Vasca arg. 1968. 51 eta 53. orriak.





bersoakin”³⁵. Iztuetaren aipamen horiek Pablo Gorosabelek berretsi eta zabaldu zituen:

“Denak plaza dantzak ziren, danbolinarekin dantatzekoak, ez baitzen ezagutzen gaueko edo etxe barruko dantzarik, gaur dauden bezalakorik”³⁶.

Gure dantzak iraganean oinarrituta daudela eta antzinako gatazka edo ohi-tura erritualen aztarrenak direla esaten badut, errepikatu besterik ez dut egingo

35. Juan Ignazio Iztueta: aip. lana, 45. orria.

36. Pablo Gorosabel: *Noticia de las Cosas memorables de Guipúzcoa* (Gipuzkoako gauza gogoangarrien berri). I. liburukia. Tolosa. E. López inprimategi, liburudenda eta koadernaketa lan-tegia. 1899. 430. orria.



gai honetan adituagoak direnek, Juan Antonio Urbeltz koreografoak besteak beste, esandakoa. Gaiaren ikuspegi azaleko honen barruan ere, kontuan izan behar da, dena den, Gaizka Barandiaranek ohartarazten duen bezala, tradizioaren barruan ere bilakaera badagoela.

“Esan liteke ez dagoela dantzarik denboraldi batean aldaketaren batzuk jasan gabe guganaino heldu denik”³⁷.

Arestian esan dudanaren haritik, erantsi dezadan halako parekotasun bat sumatzen dudala zenbait ume jolasen eta dantza batzuek egin duten bidearen artean. Horri buruz, nire *Ume jolasak. Juegos infantiles* liburuen hitzaurrearen hasieran diodana ekarriko dut, soilik, hona:

“Ez da nere ustez burugabekeria ume-jolasak bezalako izen zabalarekin eza-gutzen ditugun denborapasak garaiko inguru eta gizarteari buruz zuzenago edo okerrago egindako aspaldiko parodien ondorioak izan daitezkeela pentsatzen badugu”³⁸.

Baina ez naiz luzatuko gai honetan jakinmina duen edonorentzat eskuragarri dauden aipamenak egiten. Noan, bada, muinera.

37. Gaizka Barandiaran S.J.: *Danzas de Euskalerra* (Euskal Herriko dantzak). I. liburukia. Añamendi bilduma. 30. zk. 1963. 19. orria.

38. Juan Garmendia Larrañaga: *Juegos infantiles. Ume jolasak*. Lan guztiak. 4. liburukia. 481. orria.

Segidan zerrenda bat ematen dut, zein dantza, zein herritan eta zein egunetan egiten den jakiteko.

Maiatzaren 3a. Legazpi. Santa Krutz eguna. Ezpata dantza.

Ekainaren 23a. San Joan Bataiatzailearen bezpera. Abaltzisketa. Dantza soka.

Ekainaren 23a. Donostiako Konstituzio Plaza. Soka dantza.

Ekainaren 23a eta 24a. Tolosa. San Joan Zortzikoa. Aureskua. Pordon dantza.

Ekainaren 24a. Andoain. Axeri dantza.

Ekainaren 25a eta 26a. Hernani. Maskuri dantza.

Corpus Christi eguna. Donostia. Ezpata dantza.







Corpus Christi eguna. Oñati. San Sebastianen Zortzikoa. San Migeli erreberentzia. Zortzikoa. Banakoa. Launakoa. Makil dantzak. Jera-jera. Arku dantza. Aurreksua.

Uztailaren 2a. Zumarragako Antigua. Ezpata dantza.

Uztailaren 17a. Beasain. San Martin Loinaz. Ezpata dantza

Uztaileko hirugarren larunbata. Antzuola. Mairuaren alardea.

Uztailaren 25a. Hondarribia. Kutxa dantza.

Uztailaren 26a. Ordizia. Santa Ana. Santaneroen soka dantza.

Uztailaren 31a. Azpeitia. San Ignazio. Soka dantza.

Abuztuaren 10a. Berastegi. San Lorenzo. San Joan dantzak.

Abuztuaren 15a. Zumarraga. Ezpata dantza parrokian.

Abuztuaren 16a eta 17a. Deba. San Roke. Aurreksua. Esku dantza. Jorrai dantza.

Abuztuaren 24a. Elgoibar. San Bartolome. Ezpata dantza. Soka dantza.

Iraialaren 8a. Bedaio (Tolosako auzoa). Andre Mariaren Jaiotza. Ingurutxo.

Urriko lehen igandea. Ugarte (Amezketako auzoa) Ingurutxo³⁹.



UDAKO SOLSTIZIOKO ERRITOAK

San Joan Bataiatzailea

Solstizioko erritoak zer diren hitz gutxitan definitu beharko banu –eta definizio guztiek behar dute laburrak eta argiak izan–, sustrai naturistako ospakizunak direla esango nuke. Klimatologiak neurri handi batean baldintzatutako ospakizun naturistak, landarediarekin lotura duten erritoetan garbiroago ageri den bezala, azaldu beharrik ez duten arrazoiengatik.

Euskal Herriari lotuta, esan dezadan nabarmena dela sua eta ura solstizio bietan egoten direla. Gau luze eta argi gutxiko egunean sua etxean egiten da ordea, etxe barruan dario garra suari. Ez ditut ahaztuko, halere, urte amaierako suak, ezta gauzak erre eta kalez kale haiek eskutan hartuta ibiltzeko ohitura zaharra ere, batez ere ardoa eta olioia gordetzeko lehen erabiltzen ziren zahagi handi eta txiki balio ez zutenak.

Natorren orain, ordea, udako solstiziora: suaren, uraren eta landarediaren inguruan eduki naturista oparo adieraziz iritsi zaigun eta bizitzen dugun horretara.

39. Juan Antonio Urbeltz adiskidearen esku zabalari esker egindako zerrenda.

Suak eguzkiaren ahalmen bizigarria dakarkigu gogora, *hilkorraren argizuloa* deitzen dio Dante Alighierik. Ildo berean, eguzkiaren ahalmen bizigarria erakusten du, bere apalean, “Tori zarra eta ekatzu berria” esanez umearen amak surtara esnezko hortza botatzeko ohiturak ere.

Faraoi batek baino gehiagok izendatu zuen bere burua Eguzki Seme, eta Tartesoko erregeek ere Eguzkitik zetozela zioten.

Gizakiaren lehen superstizioetako bat geografian barrena oso zabaldutako eguzkiaren kultuan daukagu, eta udaren hasieran eguzkiaren irudi den suak indar garbitzaile berezi eta nabaria dauka, urte guztian zehar duena baino handiagoa. “San Juan bezpera, sarna fuera!” oihua sarritan entzun ohi da su gainerik jauzi egiten denean.



Herri batean baino gehiagotan, su piztu berria bizkortzeko, aurreko urteko San Joan Bataiatzailearen goizean edo Corpus Christi eguneko prozesioa pasatzean bedeinkatutako adar eta belarrak bota izan zaizkio, eta horrela solstizioko sua bedeinkatua gelditzen zen.

Auzo batzuetan, udako solstizioko su bedeinkatua edo bedeinkatu gabea bidegurutzean piztu izan da, ezbehar edo gaixotasunen arrisku oro uxatzearren.

Askotan, baserri lurretako toki nabari eta ikusgarrienean egin izan da sua, egindakoa ikusarazi nahi duen desafiozko jokabidea erakutsiz. Horrekin zerikusia dauka Idiazabalgo Ursuaran auzoan jasoak ditudan hitzok:

“San Juan dala, San Juan dala zapatu arratsaldean. Amalau atso tronpeta jotzen zazpi astoren gaiñean.

Gaur San Juan, biar San Juan, etzi San Juan Bautista, Jesukristoren lengusua da San Juan Ebangelista.

Iru ale ta gaztaina kaskalik ez, gaztaiñeri ontan sorgiñik ez. Emengo batek orko biri, ¡balio badek etorriari!”

Solstizioko su horri gaitz guztietatik libratzeko eskatzen zaio. Hala ageri da argi eta garbi jai giroko kultuari jarraiki su garren gainetik egin ohi den jauziaren aurretik egin ohi ziren oihuetan. Denak bat datoz, “Biba San Joan!” esatean ez ezik, baita erreguaren funtsean ere, ikusi ahal izan dudanez: “San Juan, San Juan berde (izadia gogoratuz), artua eta garixa gorde, txantxi-



kuak eta zapuak erre, biba San Juan berde” (Oñatiko Arantzazu auzoan). “San Juan Bautista gloriosua, onak sendatu eta gaiztoak ondatu” (Arbizun). “¡Sarna fuera, errean kanpora!” (Erron). “Artuak da garixek gorde. Sorgiñek eta lapurrek erre” (Antzuolan). Horri guztiari erantsiko diot San Joan sua pizten ez zuten etxeetara sugea sartzen zela esan zidatela Tolosako baserri batean.


Ura sorkuntza-elementu garrantzitsua da, eta udako solstizioan ahalmen garbitzaile berezia du, urtean zehar ez bezalakoa.

Marokon, San Joani eskainitako jaiak *Aansera* izena zuen eta udako solstizioan egiten zen. Ospakizun horretan uraren eta suaren inguruko erri-toak bereziki garrantzitsuak ziren.

Zumaiako hiriguneko plazatxo batean San Joan Iturria dago, eta horren aurrean egiten da San Joan sua⁴⁰.

Kanpezun, San Joan suak itzali ondoren, gazteak Ega ibaian edo ur sendagarriko Intako iturrietan (herri barruan) aurpegia garbitzen zuten.

Lugoko Quiroga herrian entzun nuen nola San Joan Bataiatzailearen bezperan etxeetako emakume banak kanpoko loreak bildu eta ontzi batean uretan jarrita, kanpoan uzten zituzten ihintzez bustitzera. San Joan goizean



familia guztiak aurpegia ur horrekin garbitzen zuen, azaleko gaitzetatik libre gelditzeko. Informazio hau zuzenean jaso dut tokiko ikerketa lanetan, eta Jesus Rodríguez López etnografo gailegoak argitaratuta ere ikusia dut.

Quirogatik alde egin gabe jakin nuen ekainaren 23ko gau horretan bertan mantak leihotik edo balkoitik zintzilik jarrita *San Joan ihintzak* bustitzen zituela eta ez zituela pipiak jotzen. Beste hainbeste egiten zuten ekainaren 28ko gauean eta, orduan, *San Pedroren bedeinkapena* hartzen zuen arropak.

40. Zumaiari: Ramon Zubia Azkue. 55 urte. 1998ko azaroaren 13an.

Esaera zahar bat ere badute⁴¹, egun horiek sarritan trumoi egunak izaten direla orotarazten duena⁴².

San Agustinek esaten du bere garaiko Libian ohitura zegoela San Joan egunean, ekainaren 24an, itsasoan bainatzeko. Horri gehi diezaioket gure herri batean baino gehiagotan solstizio egunetan errekan bainatzeko ohitura izan dela.

Irañetan, ekainaren 24ko eguna argitu aurretik, herritar batzuk herritik pasatzen den Arakil erreka joan eta antzinako errito naturista betetzen zuten. Lepoa, musua eta oinak bustitzen zituzten, horrela hazteria eta azaleko beste gaitz batzuk uxatzeko⁴³.



Gipuzkoako Leaburu herriko Maala baserrian amonak esaten omen zuen San Joan egun goizean erreketako ur guztia bedeinkatua zela, San Joan

41. "Entre San Juan y San Pedro no está el tiempo quedo".

42. Quirogan: Jose Estévez Miranda. 78 urte. Dolores Rodríguez González. 68 urte. 1986ko azaroaren 21ean.

43. Irañetan: Jose Armendariz Estanga. 73 urte. Juana Huarte Iriarte. 69 urte. Etxaide etxea. 1973ko uztailaren 29an. Elena Gascue Beramendi. 87 urte. Garalda etxea. 1985eko ekainaren 9an.

Bataiatzaileak Jesus Jordan ibaian bataiatu zuelako⁴⁴. Aukera honetaz baliatuz esango dut jasota daukadala 1400ean baserri hori, orduan jauregia, bazela erakusten duen froga idatzia.

Ekainaren 24ko goizaz esan ohi da urteko alaiena dela eta eguzkia dantzan irteten dela. Ezagutu ditut egun horretako egunsentian eguzkia jiraka ikustera etxetik irteten zirenak, eta ez dut ahaztuta utzi nahi Leitzan entzundakoa, alegia, San Joan egunean siesta egiten denbora galtzen duenak urtea lotan pasatzen omen duela esaten zuena.

Gogora datorkit herri batean baino gehiagotan jaso dudan ohar bat, baina hemen Saldiasen kokatuko dudana. Emakume bat San Joanak ospatzera gonbidatu zutelarik, jai eguna iritsi orduko hain gosari ederra eman



omen zioten, oheratu egin zen eta gauera arte esnatu ez. Esnatzean honako hau bota omen zuen, izandako esperientzia laburtuz: “Ai San Juan, San Juan egune, argitu orduko illune!”.

Ekainaren 24ko errito nahiko zabalduak eta jarraituak izan dira, orobat, ihintzetan oinutsik ibili edo larrugorri etzatea, erre kara joan eta bereziki

44. Leaburun: Josefa Altuna Armendariz. 78 urte. Eusebio Mujika Altuna. 51 urte. Valentin Mujika Aranburu. 85 urte. Maala baserria. 1985eko ekainaren 30ean.

musua bustitzea –horrela aurpegi ederra izaten zen urte guztian–, eta goi samarrean zeuden iturri jakin batzuetatik edatea, gaitz batzuk sendatzeko edo osasuna izateko.

Debako Egia auzoan San Joan egunean ospatzen dute urteko festa. Egun horretan santuari eskainitako ermitan ohiko landareak eta ura bedeinkatzen dituzte eta ura botilan hartuta auzokoek etxera eramaten dute⁴⁵.

Aian, Iturriozko San Joan ermitan, meza nagusia ematen da, jakina, ekainaren 24ko goizean, baina, aurretik, apaizak San Joan azpiko iturritik ura ontzi batean hartu eta bedeinkatu egiten du. Zenbait emakumek ur hori botilan hartzen dute, eta Aiako familia batzuetan ez da falta izaten ur bedeinkatu hori. Esango dut, gainera, batez ere haurren gaitzak sendatzeko ona dela



San Joan azpiko iturriko ura, are gehiago izena ematen dion santuaren egunean.

Urarekin batera, Iturriozko San Joan ermitan *San Joan sortak* deitzen zaienak bedeinkatzen dira: gerezi mordoska bat, sagar pare bat, arrosak, klabelinak eta zereal landare batzuk izan ohi dituztenak. Bedeinkapena San Joan ermitan ez ezik, Aiako parrokia elizan ere egiten da.

45. Debako Egia auzoan: Isidoro Aizpurua Askasibar. 63 urte. Iparragirre baserria. 1998ko azaroaren 13an.

Eta, bedeinkatutako lore sortarekin, noan orain, solstizioaren erritotik irten gabe, berritze ziklikoan bizi den landare mundura.

Udako solstizioarekin lotura duelarik, landaredia bai herri medikuntzan, bai mitologian, azaltzen da.

Oso zabaldua dago San Joan goizean etxeko sarrerako atearen bi aldeetan, elorri zuri eta lizar adartxo bana, elkarren ondoan edo gurutzea osatuz, jartzeko ohitura. Baserri giroan, etxeko atean ez ezik, leihoetan, belardiatarako oholesietan eta nekazaritzako lanabesetan ere jartzen dituzte. Elorri zuriak eta berdin lizarrak, oraingo honetan, tximista eta trumoia uxatzen dituzte. Ekainaren 23an eta hurrengo goizean bildutako landare bedeinkatuak, berriz, era askotako xedeak dituzte.



Familian norbait hiltzen bada, egosi egiten dira eta urarekin hildakoaren gorpuzta garbitzen da, neuk egiten ikusi dudanez. Trumoia denean, landare horietako sorta bat erre egiten da, eta errautsak pala edo ontzi batean hartuta, etxeko sarrerako ate aurrean ipintzen dira, tximista uxatzeko.

Herri sendagintzan garrantzia dute belar horiek eta, bedeinkatuak badira, *belar onak* esaten zaie zenbait herritan.

Horietako belarrak kutunak egiteko erabili izan dira, adibide bat emateko Oñatiko Arantzazu auzoko Soroandieta baserriko familian.

Aipatu ditudan kutun horiek onak ziren Anbotoko dama, mendi horretan eta Aloña mendiko Gaizto Zulo leizean bizi zena, uxatzeko.

Behin batean, Anbotoko damak aharia ostu omen zion artzain bati eta hark lagun bati kontatu zion gertatutakoa. Lagunak belar onekin egindako kutuna omen zeraman, eta bi gizonak aipatutako Gaizto Zulo leizera joan eta han topatu omen zuten Anbotoko dama, harrapatutako ahariarekin.

Ahariaren jabea ez zen ausartu hartzen eta esan zion lagunari: “Harrapa ezak ahal baduk”. “Bai, harrapatuko diat, bada, neurekin daramatzat eta San Joan goizean bedeinkatutako belarrak”, erantzun zion lagunak. Hori entzutean, Anbotoko dama Aloñako gordelekua utzita, su itxuran, Anbotora joan zen. Bi artzainak, bata bere ahariarekin, beren txaboletara itzuli ziren⁴⁶.



Herri medikuntzara itzuliko naiz herrialde batean baino gehiagotan haurren iztaiko hernia sendatzeko egin ohi zutena azaltzeko. Haritz bati enbor buruan zuloa egin eta gero, ekainaren 23ko gauan, Joan izeneko hiru gizon adar banaren gainean zuloaren inguruan jartzen ziren. Gizonetako batek haurra larrugorri hartu eta, hamabietako lehen kanpai hotsa aditzean, enborrean egindako irekigunetik pasatuz, beste Joan baten eskuetan ezartzen zuen “Tori, Joan” esanez. Bigarren Joanez “Ekatzu, Joan” erantzun eta haurra hiru-

46. Oñatiko Arantzazu auzoan: Juan Urzelai Biain. 55 urte. Soroandietako baserria. 1975eko urriaren 19a.





garrenari besoetara ematen zion, beti haritzean egindako zulotik pasatuz. Hirugarren Joanek, hartzerakoan, “Biba San Joan!” esaten zuen, eta horrela jarraitzen zuten haurra elkarri hiru aldiz pasatu arte, elizako kanpaiak hamabi aldiz jo eta isildu aurretik. Horren berri Donamarian jaso nuen eta Arantzán ere antzeko zerbait entzun zuen⁴⁷.

Begirada orokor bat eman diegu udako solstizioko ospakizunei, hots, San Joan Bataiatzailearenei, bere hutsune ezinbestekoak eta guzti. Orain, San Joan festa jakin batzuei begiratuta, azaldutakoa neurri batean berresten dela ikusiko dugu.

47. Donamarian: Pilar Mitxeo Martisorena. 61 urte. Surdainea etxea. Joakin Mitxelorena Andiarena. 76 urte. Argiñanea etxea. 1985eko abuztuaren 6an. Eulalio Orbeagozo Arrieta. 69 urte. Suainea etxea (Arze auzoa). 1986ko irailaren 5ean. Arantzán: Anunciación Bertiz Apezte-
txea. 74 urte. Maurizia Mitxelena Pikabea. 58 urte. 1975eko ekainaren 28an.



Donostiako San Joan arbola

Honako idatzia 1912koa da, eta datu interesgarriak dakartzkigu.

“Aurten (1912), Donostiako Udalaren erabakiz, jai tipiko bat, donostiarren oso gustukoa, kendu da.

Jaia oso aspaldidanik egiten zen. Arratsaldeko lauretan, San Bizente elizan bezpera kantatuak bukatu ondoren, elizako kapitulua Konstituzio plazara joaten zen prozesioan gurutzea altxata eta zutargiak eramanik, aurretik udal banda San Joan martxa jotzen zihoala, 1886ko ekainaren 16an erabaki bezala. Udalaren





aginduz, Konstituzio plazaren erdian goizeko seiak ezkerre jarrita egoten zen lizarra, inguruko baserriaren batetik ekarria.

Elizatik plazara iristean, kapa jantzita zihoan bikarioak, errito otoi-tza egin eta gero, lizarra bedeinkatzen zuen eta, berehala, eliz gizonak elizara abiatzen zirenean, zuhaitza erretzen zen, danbolinteroak San Joan martxa jotzen zuen bitartean. Erretzen hasitakoan, arbola bota egiten zen eta jendea lizarren inguruan pilatzen zen hostoak eta adarrak harrapatzeko. Gero, udal bandak eta danbolinteroak dantzatzeko musika jotzen zuten ilunabar arte”⁴⁸.

Gaur esan genezake, ohituren bilakaeraren barrenean, Donostiak berriro bizirik duela Konstituzio plazan San Joan arbola sartzeko errito zaharra.

Amezketak (Adarra jo)

Ekainaren 23a zen, eta Errota Zarra baserriko biztanleek eguneroko bizi-modu monotono samarra aldatzen zuen eginkizun batzuk zituzten.

Egun horretan, etxeko gazteek udako solstizioko suak erreko zituen otea, laharra eta elorri zuria moztzen zituzten.

Emakumeek San Joan loreak eta eskura zituzten beste batzuk biltzen zituzten. Belar horiekin sorta egin ohi zuten, biharamun goizean, San Joan Bataiatzailearen egunean, elizara bedeinkatzera eramateko.

Ekainaren 23ko ilunabarrean (ilunbistan) baserri edo familia bakoitzak bere sua pizten zuen eta ahal zuen guztia bertara joaten zen, “Biba San Juan sue, biba” oihu eginez eta saltoka ospatzera. Aldi berean, ingurune liluragarri hartan beti izaten zen adarra joko zuenik, gero beste baserrietatik era bereko erantzuna jasotzen zuelarik, jai giroak kutsatutako oihartzuna bailitzan.

Adarra jo aipatu dut, lagunarteko elkarrizketan maiz erabili ohi den *neri adarrik ez jo* esamoldearen jatorria dena. Eta interesgarria edo, gutxienez, jakingarria delakoan, esamolde horren jatorriaz azalpen bat emango dut, herri honetako zenbait baserriaren aditutakoan oinarrituta.

Ezkondeiak egitekoak ziren egunaren bezperan eta ezkontzeko bezperan, andregaiari adarra jotzen zioten. Beti ilunpearen babesean, irri egiteko asmoz eta mesprezuz egiten zuten, neskaren baserri ingurutik. Ohitura hori berrogei bat urte dela galdu zen.

Goazen harira, ordea.

San Joan egunean, goizeko zortziak aldera, baserrietik irten eta belardira joaten ziren, hango ihintzetan oinutsik ibiltzera, ordu erdi batean edo, errito horrek osasunari on egiten ziolakoan.

48. *Euskalerraren alde*. II. (1912). La Gran Enciclopedia Vasca arg. Bilbo. 1974. 382. or.



Beranduago, baserriko atean lizar adar bat jartzen zuten, tximistaren arriskua uxatzeko.

San Joan eguneko meza nagusian belar sorta bedeinkatzen zen eta gero, ganbaran gorde.

Katarroa edo eztarriko mina sendatzeko, bedeinkatutako belar horietako batzuk egosi eta haien lurrunak hartzen ziren burua eskuoihal batez-edo estalita. Katarroa izanez gero, oinetako bainua hartzen zen, egositako belar horien uretan. Belar horien ur egosia erabiltzen zuten etxean hildakoren bat izanez gero, hura garbitzeko, eta gaixo zegoen aziendari ere ur hori ematen zioten edateko⁴⁹.

Elduaian

Orain dela hirurogeita hamar bat urte arte, San Joan Bataiatzailearen eguna jai izaten zen. Neska-mutilak izaten ziren “San Joan sue” egiteko behar zena ekartzeko arduradunak.

San Joan bezperan, arratsaldeko hirurak aldera hasten ziren festa kanpaiak eta isildu gabe jarraitzen zuten gaueko bederatzia aldera egunero jotzen zen otoitz kanpaiarekin bat egin arte. Ondoren, suak pizten ziren. Sols-

49. Amezketa (Ugarte auzoan): Manuel Karrera Ormaetxea. 78 urte. Errota Zarra baserria. 1980ko ekainaren 8an.

tizioko su horiek baserri bideetan edo baserriko lurretan pizten ziren, kanpotik gehien ikusteko moduko tokietan.

Oraindik bizirik dagoen beste ohitura bat, etxeko gizonak bete ohi dutena, San Joan goizean goiz mendira irten eta lizarra eta elorria ekartzea da. Ekarritako adarrak baserriko sarrerako atearen bi aldeetan jartzen dira eta, handik egun batzuetara, ihartuta daudenean, erretiratu.

Ekainaren 24an bertan, goizean, neska gazteak belardi eta soroetara joan ohi ziren San Joan loreak biltzera. Lore sorta arretaz prestatu eta San Joan eguneko meza nagusian bedeinkatzera eramaten zuten.

Trumoia zenean, bedeinkatutako lore horietako batzuk surtan erretzen ziren. Orain, egiteko hori kandela edo argizaria, hori ere bedeinkatua, piztuz betetzen da.

Etxean norbait hilez gero, San Joan lore batzuk eltzean edo pazian egosi, eta ur horrekin hildakoaren gorputza garbitzen zen.

Abereren bat gaixotzen zenean ere, lore horiek egosi egiten ziren eta, manta batez lagunduta, gaixotutako alderdiari lurruna ematen zioten. Urtearen buruan, oraindik gelditzen ziren lore bedeinkatuak surtan erretzen zituzten⁵⁰.

Elgetako San Joan arbola (Larrabilziarra edo Larrabiltzear auzoa)

Ekainaren 23a baino egun batzuk lehenago, neska-mutillak beren baserri-tik hurbileko basoren batera joan eta, lurretik, adar eroriak, laharra eta otea hartu, eta etxera eramaten zituzten bizkarrean lotuta edo, bestela, lurrean arrastaka (tatarrasean edo narrasean).

Zabor hori solstizioko sutan erretzeko zen eta, horretarako, bere garaian, toki jakinera eraman ohi zuten, hau da, baserriko lurretan auzokoek eta ingurukoek ondoen ikusiko zuten tokira.

Ilunkeran, elizako kanprietako batek jotako Agur Mariatako deia (“are-maitakoa”) entzutean, pizten zuten -eta gaur egun ere egiten da- San Joan sua, eta “¡San Joan, San Joan berde, artuak eta garixak gorde, lapurrak eta sorgiñak erre. Biba San Joan berde!” oihu egin ondoren sugarren gainetik jauzi eginez ospatzen dute. Hortxe ikusten ditugu, berriro ere, gau horretako suaren ezaugarriak, erritoaren oroipen naturistarekin batera. Orain urte batzuk, Elgetako hirigunean solstizioa ospatzeko hiru su egiten zituzten, bata Goiko Kale edo San Roke Kalen, beste bat herriko Plazan, eta bestea Salbador kalean.

50. Elduaienen: Maria Etxeberria Leiza (Estankoa). 92 urte. 1985eko maiatzaren 23a.



San Joan suaren ondoren, herriko gazteak plazan biltzen ziren eta handik basora joan eta haritz bat mozten zuten (haritza lehen; gero, haritzaren ordeztu, lizarra edo pinua izaten zen). Aurretik bereizia zuten zuhaitza ezkutuan harrapatzen zuten eta, plazara eramateko, lepoan hartzen zuten. Plazan azala haizkoraz kentzen zioten, goiko bi metroetan izan ezik, azken zati horri bere adar eta hostoak uzten baitzizkioten eta, apaintzeko, ahal zuten balkoietatik harrapatzen zituzten loreak ipintzen zizkieten. Laurogei urtetik gorako nire berri emailleek gogoan zuten nola inoiz edo behin katua bizirik lotzen zuten San Joan arbolaren muturrean. Alde batera utziko dut zer teknika erabiltzen zuten zuhaitza zutik ipintzeko.

San Joan arbola altxatakoan, gazteek aureskua dantzatzen zuten modu nahiko informalean eta, gero, tabernan berakatz zopa arrautza eta urdaiarekin ematen zieten. Arbola gazteek kentzen zuten zortzi-hamar egunen buruan.

Kontu hauen berri eman didaten baserrietan, San Joan egun goizeko lehenbiziko lana belardi batera joan eta ihintzetan oinutsik ibiltzea izaten zen. Ohitura hori ona zen osasuna izateko edo sendatzeko.

San Joan egun goizean goizeko beste eginkizun bat lizar adarren bat edo beste eta San Joan lore, milorri, iratze, arrosa eta krabelin mordoska bat biltea izan da.

Baserriko atetik gertu lurrean zulo bat egin eta lizar adarraren beheko muturra han sartzen zuten. Gainera, aipatu ditudan landareetako batzuk

hartu eta haiei arto landarea eta galburua erantsita sorta egiten zuten, eta hondoan berakatz burua ipintzen zuten.

San Joan eguneko lehen ordu horietan, sorta eginda sobera gelditzen ziren iratze, milorri eta loreak baserriko atarian zabaltzen zituzten, eta desegin eta desageritzen ziren arte bertan laga. Lizar adarra kentzeko, ihartu arte itxoi-ten zuten.

Belar sorta San Joan goizeko mezan bedeinkatzen zuten. Oinaztura arriskurik zegoenean, txingar batzuk ontzi batean hartu eta bedeinkatutako sortatik eskukada bat botatzen zioten gainera.

Haginetako mina kentzeko ere, bedeinkatutako sortatik eskukada bat egosita, haren lurruna hartzen zen behar bestetan, aurpegia eskuzapiz estalita⁵¹.



Orio. Sanjoanak



51. Elgetan (Larrabilziarra edo Larrabiltzear auzoa): Maria Askasibar Askasibar. 86 urte. San Joan baserria. 1987ko irailaren 20an eta urriaren 3an eta 11n. Maria Zabala Urzelai. 82 urte. Larrabiltxo baserria. 1987ko irailaren 20an eta urriaren 3an eta 11n.



Orioko herria Talaigainetik behera dagoen muino batean dago, etxeetako leihoak erriorantz begira dituela. Deigarria da, gure itsasbazterreko zenbait portutan arrantza galdu edo behera etorri denean, Oriok nola leial jarraitzen zaion itsasoari eta itsasoarekin lotutako munduari.

Kai muturra egin zuten arte, Gipuzkoako herri honetako barra, Talaiko kotatik gertu zegoen, baina ez zen finkoa. Han sortzen den hondartza Antilla deitzen da, eta hura zainduz, haitz txiki baten gainean San Joan Bataiatzailearen ermita dago.

Duela urte batzuk santu aintzindariaren egunean, ermita horretara joateko eta gero erromeria egiteko ohitura zegoen.



Ermita horretatik gertu etxe handi bat zegoen Palazio deitua. Jabea edo, behintzat, han bizi zena Joaquín Pérez zen. Hark festarako musika kontratatzen zuen eta ohitura bitxi bat sortu zuen:

“egun horretan, itsasoratzean, bere etxe aurretik pasatzean sirena jotzen zuten arrantza ontziei sei-zortzi litro ardo opari egiten zien. Egun horretan bestetan ez bezainbat sirena izaten zen, hainbeste non baziren goiza argitzerako entzundako sirena kopuruagatik jakiten zutenak egun hura zer egun zen”⁵².

Errenteria. Baserriko ospakizuna

Zamalbide auzoan, Lubeltza Berri baserriko atarian barrena sartu naiz. Gure gaiaren inguruan gaur egun bizirik dauden zenbait ohitura lotuta daude dagoeneko historiara pasa diren alor bereko beste batzuekin. Historiara pasatako horiek, kostata ekartzen dira gogora, gainera.

Ekainaren 23ko arratseko sua inguruetatik garrak hobekien ikusiko diren tokian egingo da, eta emakume batek bedeinkatuko du botilan daraman ur bedeinkatuarekin. Izpiritu gaiztoak uxatzen dituen sua da hori. Lehen, familiako kideek gari lastozko sorta bana su horrekin piztu, eta baserri inguruko lurra bedeinkatzen zituzten, behin eta berriz “San Joan dala, San Joan,

52. Juan Garmendia Larrañaga. Luis Pedro Peña Santiago: *El mar de los vascos. II. Del golfo de Vizcaya al Mediterráneo* (Euskaldunen itsasoa. II. Bizkaiko Golkotik Mediterraneora). Txertoa arg. Donostia. 1982. 109-112. orriak.



Lubeltza Berriko soruan” esanez. Hori egin eta gero, kandela batzuk pizten zituzten San Joan sutan, eta beren argiontzietan sartuta, baserriko lurzati guztietan bana jartzen zuten, horrela haiek berriz bedeinkatzeko. Argiontziak erretiratzeko ez zuten egun jakinik, ez baita ahaztu behar bizitza normalean erabiltzeko tresnak zirela, orduan ez baitzegoen argi indarrik.

Bestalde, aspaldi hartan, mutilak neskari egiten zion lehen maitasun seinalea, San Joan eguna argitu baino lehen neskaren baserritik urruti gabe eta handik ikusten zela, lurrean lizar adar bat sartzea zen. Ohitura horrek ere bazuen bere atzealdea, ordea, maitasun-erakutsia zapuzteko lizarraren ordezkari makal adarra sartzen baitzen.

Errenteriako baserri horretan jakindako gainerako ohiturak behin baino gehiagotan azaldu ditudanen oso antzekoak dira⁵³.

Tolosako bordontzariak

Udako solstizioko edo San Joan Bataiatzaile eguneko ospakizunen inguruan egiten ari naizen azterketak erakusten duenez, ospakizun horiek jatorri ezezaguneko erritoetatik datoz, herriak bizi izan dituen erritoetatik, nahiz eta asko hilik dauden. Horregatik iruditu zait egoki, burutik behin betiko joan ez dakizkigun, oroimenetik paperera ateratzea.



53. Errenterian (Zamalbide auzoan): Antonia Arizmendi Zuloaga, 74 urte. Salvador Yarzabal Berra, 87 urte, Lubeltza Berri baserria. Maria Josefa Portugal Mendiburu, Errenteriako Arkaitze baserrian jaioa. 1989ko apirilaren 9an.



Berriz diot nire asmoa urrun dagoela jaien gida hotz bat izango litzatekeena egitetik. Horretarako egitarauak badira eta eskuragarri daude.

Hori esanda eta San Joanen omenezko ospakizunetatik irten gabe, Tolosako bordontzariari erreparatuko diet. Horien parte hartzearen sustraia Erdi Aroko gertaera bat da, Beotibarko Gudua (1321). Hona 1763ko abenduaren 29ko txosten bat, Erregeren Kontseiluko A. Barredak sinatua:

“Bordontzariak, ordu bietan eta formazioan, alkatearen etxetik pasatzen ziren, danbolina eta danborrarekin, hari elizara eta San Joanen basilikara laguntzeko, eta gero herriko plazara, han poz eta alaitasun zintzoen erakuskariekin jarraitzeko. Behin funtzio hori bukatutakoan, alkate jaunak ohiko freskagarria emango du eta festako diputatuek zahagi batzuk ardo emango dizkiete pordoiekin dantza egin duten mutilei”⁵⁴.

ALARDEAK

Zalantza izan dut alardeei buruzko lerro hauek hemen idaztea egokia ote zen ala ez. Izan ere, *Bertan* bilduma honetako zortzigarren zenbakian Alardeak izeneko saiakera interesgarri bat argitaratua du nire adiskide zintzo Juan Antonio Urbeltzek. Egileak, bere lanetan izan ohi duen trebetasunaz, alardeen berri luze eta zabal eman du hor, eta horregatik ez nuen garbi ikusten gai honetaz



54. Tolosako Udal Artxiboa, A-1-21, 218-220. orriak.





idaztea komeni ote zen. Hala ere, nire egitekoa XVI. mendera mugatua egoteak –ikuspegi orokorrerako baliagarria den begirada lokalista samar batetik–geroagoko erreferentzia gutxi batzuk egin arren, eta Iñigo Ramírez Telleriaren *Antzuolako Alardeak: Mairuaren jaialdia* liburuaren hitzaurrearen egilea izateak –Urbeltzek zor zaion arreta eskaintzen dio lan horri–, gai honi buruzko aipamen batzuk egiteko bidea samurtzen didatelakoan nago.

Denok ezagutzen eta askok ospatzen ditugu Antzuolako, Hondarribiko eta Irungo alardeak, gerra ekintza jakinen oroigarritz egiten direnak. Hiru horiek alde batera uzten baditugu, ordea, esan dezaket oro har arma erakusketa horien jatorria Foru Ituna dela. Baina hau ez da gai horretaz jarduteko abagune eta toki egokia.

Asko eta errepikakorrek dira Gipuzkoako batzar nagusiek eta diputazioek herrietako edo probintziako jende armatuari buruz hartutako erabakiak.

Honako xedapenak jakinarazi zituzten 1554ko azaroaren 15ean Seguran egindako Batzar Nagusian:

“Egun horretan Don Diego de Carvajal Probintziako kapitain jeneralaren gutuna irakurri zuten, zeinetan hitz egiten zuen Batzar horretan erabakitakoaren gainean bai eta Bezerra lizentziatuak, Probintziako korrejidore izanak, idatzi zuenaren gainean, hark esan baitzuen nork bere herrian alardea egiteko agindua eman zezala, beharrik izanez gero jendea jakinarene gainean egon zedin, eta Carvajalek idazten zuen, orobat, Probintziak hori iraintzat hartu izanaren eta beste gauza batzuen gainean. Eta gutun horretan bertan esaten zuen egin dadila alardea Probintzia guztian eta egin dadila kopia bat jakin ahal izateko zer jende gaitu dagoen beharrik izanez gero Errege zerbitzatzeko (...). Eta alarde horri dagokionez agindu zuten, esandako probintziako ohiko alkateek, nork bere herrian edo eskumena duen esparruan, jakinaraz dezatela, kontuz ibilita isilpean eta zaratarik atera gabe, zer jende dagoen eta bakoitzak zer arma dituzten, eta armarik ez daukatenei abisu eman diezaietela egin ditzaten eta beharra denerako izan ditzaten”⁵⁵.

Honako testu hau Azkoitian 1556ko azaroaren 18an egindako Batzar Nagusikoa da:



55. *Gipuzkoako Batzar Nagusiak eta Diputazioak (1554-1557ko agiriak)*. Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Gipuzkoako Foru Aldundia. L.M. Díez de Salazar Fernández. M.R. Ayerbe Iribar. *Registro de la Junta general celebrada en la villa de Segura el 15 de noviembre de 1554* (Seguran 1554ko azaroaren 15ean egindako Batzar Nagusiaren erregistroa). II. liburukia, 61. orria.



“Egun horretan, Batzar Nagusian, Don Diego de Carvajal Probintziako kapitain jeneralaren gutuna irakurri zuten, zeinetan funtsean esaten dion Probintziari alardeak egin ditzatela eta ikus dezatela beharrik izanez gero zer jenderekin zerbitzatu ahal izango duten Errege eta zer arma dituzten, eta izenda ditzatela beren kapitainak edo koronela, beste batzuetan egin ohi duten bezala (...). Hori irakurri ondoren, korrejidore jaunak gai horretaz Batzarrari bidaltzen zion zedula bat irakurrirazi zuen, zeinaren bitartez jakinarazten baitzuen Don Diego jaun horrek nola idatzi zion esanez ezer behar izanez gero Donostian eta Hondarribian komeni dela probintzia honetako jendea jakinaren gainean egotea eta zehaztua egotea zenbat jende sar daitekeen haietan beren kapitaineekin. (...)”⁵⁶.

Urte bete geroago, 1557ko irailean Tolosan egindako Batzarrean, armarik onena ekartzan eta tiratzaile onena zela erakusten zuenari saria emateko proposatu zuen korrejidoreak:

56. Ibidem. 343. orria.

“herri bakoitzean bitxi bat eman diezaiotela alkabuzik edo pikarik onena atera eta hobekien tira dezanari, jendea ohartarazita egon dadin beti, noiznahi deitzen diotela ere, beharrezkoa gertatzen bada”⁵⁷.

Ikus dezagun orain 1572ko azaroaren 19ko Segurako Batzarrean erabilitako gaien zati bat.

“Eta batzartuta zeudela, Batzar horretara Arrasateko (...) etorri zen, Probintziak armen zerrendaren kontu horretarako izendatutako komisarioa. Eta esan zuen bere iritziz Probintziak agindu behar lukeela Probintziako hiri eta alkate herri guztietan alarde orokorra egiteko San Joan Bataiatzailearen edo Santiago egunean, eta herritar eta biztanle guztiak armatuak egon daitezela alkabuzez eta buru eta gorputz babesez, eta ez baleztaz. Eta arma horiek kapareenak direnez eta izan behar dutenez, Erregeri eskatzen zaio agindu dezala ezingo direla ez erretiratu ez bahitu, ez hartu eta ez saldu, horrela denak egongo direlako armaz hornituta, inori falta ez zaiola”⁵⁸.

1579an Oiartzunen egindako Batzarrean erabaki zen Tolosa zela Probintzia osoko alardeak egiteko tokirik egokiena.

Gipuzkoako kapitain jeneralak, besteak beste,



57. Ibidem. 459. orria.

58. Ibidem. V. liburukia. 409. orria.

“Probintziaren gain utzi zuen nor bere herrian jendea ongi armatuta edukitzen saiatzeko ardura, alkabuzez eta beste arma erabilgarri eta gerrarako beharrezko batzuez, eta ez baleztaz, oraingo garaian ez baitira han erabilgarriak ezta beharrezkoak ere, eta, berdin, jendeak festetan ariketaren bat egiteko ardura ere” (...).

Korrejidoreak esan zuenez,

“Tolosako hiriak proposatu bezala (...), eta gaur (...) Batzar honetan kapitain jeneralak esan bezala, bestela jokatzekotan zer gerta litekeen gogoan izanik, Jaungoikoaren eta Erregeren zerbitzurako eta oro har gauza publikoaren onerako, tokirik erosoena eta egokiena Tolosa zela jotzen zuen, eta hara eramateko asmoa zuen gero bere Auzitegia (...). Kapitain jeneral jaun horrek proposatutakoari dagokionez, Oartzungo bailarak esan zuen Probintziarentzat beharrezkoa zela herri guztietan alardeak urtean behin egitea”⁵⁹.

Tolosako Udal Artxiboan 1674. urteko honako ohar hau jasota dago: Alardea. Apirilaren 24a. “Espiritu Santuaren Pazko egunean egin”. Elduaiengo Udal Artxiboan, berriz, 1796ko beste aipamen hau aurkitu nuen orain urte batzuk:

“Gaurko egunean berrehun eta hogeita lau erreal eman ditut, alardeko gas-tuengatik eta bolborarengatik ordainduak; 37-224 zk. ordaintzeko aginduak eta ordainagiriak osatua.



59. Ibidem. VII. liburukia. 278-9. orria.

Horrez gain, hogeiei erreal, Ignazio Etxeberriari tirorik onena egiteagatik ordaindua -20”.

Elduaiendik alde egin gabe, denboran pixka bat aurrera eginda, Plazaolako burdinola alokatzeko eskritura dago, 1824ko irailaren 27an Jose Antonio Muñagorri⁶⁰ eskribauaren aurrean egina, eta bertan honako hau dago idatzita:

“Maizterraren eginbeharra izango da errentan emate honek iraungo duen sei urteetan bi herri horiei hogeita lau fusil arrunt eta onak eskuratzea, hau da, urtean lau, horietatik bi heren Berastegirako eta beste herena Elduaienerako”⁶¹.

Hona ekarri dudan XVI. mendeko alardeei buruzko testuan Arrasateren izena azaldu da. Bada, Jose Maria Uranga Arregik *Mondragón. Trayectoria y anecdotario* (Arrasate. Egindako bidea eta pasadizoak) liburuan dioenez, 1844 arte Santiago eguna asko ospatzen zen armadaren edo bertako konpainiaren alardearekin.



Herriak ogi eta ardo anoa ematen zion alardean parte hartzen zuen guztiari eta

“halako bi, bertako arma zaharrekin agertzen zenari, alegia, herrian egindako lantza edo ezten haga, moskete edo ehizako eskopetarekin agertzen zenari”⁶².

San Joan eguneko alardean, Tolosan, eskopetazaleek parte hartzea Gipuzkoako antzinako milizien oroigarritzat hartzen zen, eta hala erakusten du, informazio gehixeago ematen digun orain dela hirurogeita hamar urteko eskaera honek:

60. Jose Antonio Muñagorri, Bakea eta Foruak lema aldarrikatu zuena. Eratsungo Zumarrista burdinolan hil zuten 1841ean.

61. Gipuzkoako Artxibo Orokorra. PN. 2172 zk. paper sorta, 137-143?.orriak. Tolosa, 1824ko urriaren 10a.

62. José María Uranga Arregui: *Mondragón. Trayectoria y anecdotario*. (Arrasate. Egindako bidea eta pasadizoak) (Monografía). Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala. Donostia. 1970. 83. orria.

“Baimena eskatzen dizut hilaren hogeita lauan, San Joan Bataiatzailearen egunean, Udal honek bereak dituen hamabost fusil Remington erabili ahal izan ditzan Santuaren prozesioan salbak egiteko, antzinako ohiturari jarraiki.

Jainkoak gorde zaitzala.

Tolosa, 1929ko ekainaren 7a.

Gipuzkoako gobernadore zibila. Donostia”⁶³.

Azalpen hau amaitzeko esango dut, gauzak sinplifikatzeko arriskuaz jabetzen banaiz ere, gure herrietako festak aberasten dituzten alardeak, Antzuolan, Hondarribian eta Irunen egiten diren eta zein bere herrian hain barrutik sentitzen direnak, gure jokabide historikoaren erakuskariak direla.

HONDARRIBIA

San Pedro Arrantzale Kofradia. Uztailaren 25eko Kutzaren jai

“Arrantza gandu artean biltzen duen misterio korapilatsuak ez du garbi ikusten uzten, ez haren jatorriaren antzinasuna, ez haren emaitza beti asmagaitza”,

dio Ciriquiain-Gaiztarrok⁶⁴.



63. Tolosako Udal Artxiboa. B-6-2. 1919-1932.

64. Mariano Ciriquiain-Gaiztarro: *Los Vascos en la Pesca de la Ballena* (Euskaldunak balearen arrantzan).



Hondarribiaren irudi zahar beti berria Bidasoa gure azken ibai urdineko estuarioko hondartzen gainean ageri da. Andre Maria Jasokundekoaren eliza, gaztelua, Panpinot kalea eta kale nagusia, eta Portu auzoa ditugu Hondarribiaren bihotza. Gaur-gaurkoz ezerk ez du hausten herriaren batasun monumental, etnografiko eta moderno, kostako galtzada famatura zeraman *hondarrezko ibia* zen tokian eraikitako herri honen merezimendu handiena⁶⁵.

Arrantzaleen San Pedro Kofradiako buru batzorde bat da, eta batzordea osatzen dutenak: abade nagusia, bi itsasoko alkate edo seineru, hiru abade txiki, eta idazkari edo maiordomoa⁶⁶.

Urtero, ekainaren 29an, San Pedro egunean, aukeratzen dira abade nagusia, bi seineruak eta hiru abade txikiak. Kofradiaren sorrerari dagokionez, gaiaren aztertzaileek XIV. mendean kokatzen duten arren, ez datoz denak bat. Lehen Ordenantza 1566koa da eta Klemente VIII.ak bulda eman zion 1595eko maiatzaren 12an. “Kofradiaren estatutu erraz eta argiek –dio Felix Elejaldek– itsasgizonekin eta beren egitekoekin zerikusia zuen jarduera oro arautzen zuten”⁶⁷.

65. Juan Garmendia Larrañaga. Luis Pedro Peña Santiago: aip. lana, 74. orria.

66. Florentino Portu: *Fuenterrabía, Notas históricas y curiosidades hasta 1969* (Hondarribia, 1969 arterainoko ohar historiko eta gauza jakingarriak). Ondarribi inprimategia. Hondarribia. 1975. 191. orria. Juan Garmendia Larrañaga. Luis Pedro Peña Santiago: aip. lana, 84. orria.

67. Florentino Portu: aip. lana, 191. orria. Juan Garmendia Larrañaga. Luis Pedro Peña Santiago: aip. lana, 84. orria. Felix Elejalde *Zozketa: Fuenterrabía* (Zozketa: Hondarribia, monografía). Donostiako Aurrezki Kutxa Muzipala. Donostia. 1970. 35. orria.

Kutxaren jaia uztailaren 25ean, Santiago egunean egiten da. Egun horretan hartzen du bere kargua abade nagusi berriak. Echart Urangak *Fuenterrabía* (Hondarribia) monografian xehetasun guztiekin deskribatzen du uztailaren 25eko segizioa:

“Ermandadera itzultzerakoan, elizaren atarian osatzen da berriz segizioa.

Egoitzara sartu aurretik, kutxa daraman arrantzale familiako neskatxak orpo gainean jira eta bira egiten du buru gainean kutxa astuna duela, asaba zaharren-gandik datorren eta mendez mende errepikatu den erritoaren deiari erantzunez”⁶⁸.

Gaurko kutxak, antzina Kofradiako dirua, liburuak eta agiriak gordetzeko erabiltzen zena adierazten du.

ORDIZIA

Santaneroen aureskua

Betidanik, Ordiziak oso barrenean sartua izan du dantzaren muina. Ordizian berezitasun nabaria dute euskal dantza tradizionalak. Horien artean



68. Juan Maria Echart Uranga: *Fuenterrabia* (Hondarribia, monografia). Donostiako Aurrezki Kutxa Municipal. Donostia. 1970. 74. orria.



Santaneroen Aurrekuua da garrantzitsuena, herriko zaindari Santa Anaren biharamunean urtero egiten den dantza zaharra. Ez dakigu noizkoa den Santaneroen Kofradia, Santa Ana zaindარი duena, baina bai 1509ko uztailaren 26an onartu zirela ordenantzak, Kofradiako kide gizon eta emakumeek berresten zituztenak,

Udal Artxiboan jasota dagoenez, eta handik aurrera bilera guztien aktak jasotzen zirela.

Elkarte hori elkartasunezko espirituarekin eta anai-arreba edo kofradekideei edozein gaitzetan laguntzeko asmoarekin sortu zen. Kofradekideak Santa Ana biharamunean elkartu, *requiem*-eko meza nagusia entzun eta bi maiordomo aukeratzen dituzte, urtero. Aurreko urtean ezkondutako senar-emazteak meza horretara joaten dira. Gero, txistu soinuarekin, alkatea Udaletxetik jaisten da, eta berekin sei andre ezkonberri eskutik helduta, denek Manilako zetazko xala jantzita dutela. Maiordomoek Esku Dantza dantzatzen diete sei ezkonberriei eta, ondoren, banaka-banaka aurreko urtean ezkondu-tako andre guztiak ekartzen dituzte Udaletxetik, eta horrela katea osatu. Gizonek andreen ohoretan egiten dute dantza, erreberentziak egiten dizkiote elkarri, eta ia modu liturgikoan jarraitzen du dantzak, gaur atzo bezala, eta orain dela ia bostehun urte bezala. Dakigunez, 1873an eta 1936an bakarrik utzi zen egin gabe ordiziarrek hain bihotzekoa duten errito hau, bietan gerra zibilak tarteko.

Dantza bukatzean, ezkonberriak txistulariekin festa giro alaian kalez kale ibiltzen dira, egun horretan Ordizian dauden asko elkartzen zaizkielarik⁶⁹.

DEBAKO SANROKEAK

“Debako patroia San Roke da, eta egun horretan eta hurrengoetan elizkizunak eta plazako ospakizunak izaten dira, zezen, dantza eta guzti”.

69. Ordiziako Santaneroen Aurrekuuari eskainitako lerro hauek Fermin González Fuentes *Kifi*-ri esker eman ahal izan ditut. Bere herriko gaietan aditua, esku zabalez eta adeitasunez lagundu dit, bere hitzekin esateko “Gipuzkoako bazter polit batean, Ordizian” 1921eko uztailaren 7an jaio zen idazle honek.

Horrela ematen du hitz gutxitan Gipuzkoako kostako herri honetako festen berri Pablo Gorosabelek⁷⁰.

Urtero, San Roke egunean, prozesioa egin ohi da parrokiatik herriko zaindariaren ermitara. Elizatik irtetean eskudantza egiten da San Rokeren irudi aurrean eta handik, Santua hartuta, jendea ermitara igo ohi da, Udalbatza tartean dela, eta Santa Krutz ermitatik pasatzerakoan geldialdia eginez.

San Roke eguna abuztuaren 16a da. Festak hasi, hilaren 14an hasten dira, danborradarekin, eta zenbait egunetan ospakizun asko egiten da, entzierroak, zezen korrida, marinelen korrida eta umeen eguna, besteak beste⁷¹.

Teresa Amuategiren *Deva y mis recuerdos* (Deba eta nire oroipenak) lana irakurtzen, gozatu egin dut herriko jaiei buruzko testuarekin. Egileak bere bizi-penak nola berritzen dituen azaltzen du, poesiaren ukitua duen xarmarekin.



70. Pablo de Gorosabel: *Diccionario Histórico-Geográfico-Descriptivo de los Pueblos, Valles, Partidos, Alcaldías y Uniones de Guipúzcoa* (Gipuzkoako herri, ibar, barruti, alkate herri eta elkar-teen hiztegi historiko, geografiko eta deskribatzailea). Tolosa. Pedro Gurruchaga inprimategia. 1862. 19. orria.

71. Francisco de Aldabaldetrecu Saiz: *Monreal de Deva* (Debako Monreal, monografia). Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala. Donostia, 1970. 59 eta 99. orriak.



Nekez azal nezake hobeto, nire hitzak erabilita. Hala, bada, zati hori hona ekartzea dut onena:

“Hilaren (abuztuaren) 15ean, parrokiako zaindari Andre Maria Jasokundekoaren egunean, Udalbatza meza nagusira doa, txistulariek Alkate Soinoa joz laguntzen diotela. (...).

Azkenean argitu du San Roke eguna. Txistulariek kalerik kale Iriyarena joz esnatu gaituzte. (...). Zazpi eta erdietan puntuan, festetako lehen entzierroa hastera doa. Zezenen bide ezinbestekoa den Lersundi kalera jotzen duten kale guztiak itxi dituzte, barririk, oholak, hesiak eta abar jarritz. Gaupasan ibilitako taldeek kalean barrena kantuan ibiltzeari utzi, esne eta barazki garraioan etortzako baserritarren astoak zirikatzeari ere laga, eta kale zaharrera abiatu dira zezenen aiduru. (...).”

Gero, entzierroa deskribatu eta honela jarraitzen du:

“Zezenak ukuiluan sartu ondoren, behizainek mantsoak eraman dituzte, eta *Xakak* zezen bolaztatu bat atera du Deban oso ugari diren zaleentzat.”

Gauzak gehiegi ez errepikatzearren, alde batera utziko dut Teresa Amuatetik arretaz deskribatzen duen prozesioa, elizatik San Rokeren ermitara joaten dena.

“Arratsaldean korrida egiten zen, plazan berriz ere musika izaten zen eta, eguna amaitzeko, etxafuego sorta bat erretzen zen. Hori izaten zen gure haurtzaroko San Roke eguna”.



Gero festak jarraitu egiten zuen hurrengo egunean –*San Roke Txiki egunean*–, Marinelen korridaren egunean eta Beraneanteen korridaren egunean.

(...). Badakit, dena dela, ondo asmatutako berrikuntza polit bat sartu dutela: Umeen Jaia deritzana (...). Festa-alkatea umea da eta ordena zaintzeaz ardura-tzen diren udaltzainak ere umeak dira. Goizean entzierroa eta meza nagusia izaten dira, eta arratsaldean zezen plazan jaialdia egiten da, umeek bakarrik parte hartzen dutela. Umeak dira toreadore, umeak boxeatzaila, umeak aureskua dantzatzen, umeak zirkoko eszenak antzesten, umeak betiko dantzak ezin hobeto dantzatzen, eta horrela. Zoragarria da⁷².

Teresa Amuategiri hartu diogun aipamen horrek xehetasun guztiekin ematen digu Gipuzkoako itsas bazterrean dugun Debako festen nondik norakoen berri. Badakit kontaketa luzeegia izan bide dela, agian. Luzea bai, baina interesik galdu gabe ordea, eransten dut orain, eta, horregatik, egokia deritzot hona ekartzeari.

AUZO EGUNA (ARANTZAZU, OÑATI)

Ospakizun honek elkartasunaren espiritua erakusten digu: abegitsua eta eredu-garria da.

Irailaren 9an ospatzen den Arantzazuko Amaren egunaren hurrengo larunbatean ospatu ohi dute Auzo Eguna Oñatiko Arantzazu auzoan.



72. Teresa Amuategui: *Deva y mis recuerdos* (Deba eta nire oroipenak, monografia). Donostiako Aurrezki Kutxa Municipal. Donostia, 1970. 18-21. orriak.

Jai horretan, auzoko baserrietan bizi direnek eta bertan jaiotakoek parte hartzen dute.

Egun horretan, goizean, meza egiten da Santutegian eta, ondoren, auzoko jatetxeren batean, bazkaria, urtero jatetxea txandatu. Arratsaldean, bertsolariak, trikitixa, eta dantza, jazbandarekin; guztia jatetxeko jangelan. Auzo Egun hori urtero egiten da orain ere, eta Oñatiko Udalaren diru laguntza du⁷³.

HONDARRIBITIK URNIETAKO EBANJELIOETARA

Pelegrinazio hau Errosario egunean, urriaren lehen igandean egiten da. Lehen, *Ebanjelioak* urriko igande guztietan egin ohi ziren, eta Hondarribiko familiak umeekin joan ohi ziren. Bazkaria eramaten zuten, eta joan-etorria trenez egiten zuten. Ohitura zen erromeriatik zintak ekartzea, *Urnietako zintak*. Ospakizun horretan, Urnietako San Migel parrokian haurrak bedeinkatu egiten dira, bertan meza entzun ondoren. Amek umeak eramaten dituztenari esker, bizirik dago Urnietako *Ebanjelioen* debozioa⁷⁴.

ZEZEN FESTA

Salamanca-ko txantxatan esaten zen bezala, zeruan zezenak jokatuko balira, haiek ikustera zerura joateagatik, gipuzkoar guztiak santuak izango omen liritekeela dio Aita Larramendik. Aipamen horrek ez du azalpenik behar.

Tolosar onguilleai
"Probintzia guztia
umore onian,
Tolosara etortzen da
San Juan egunian;
danbolin soiñu ederra
adizu kalia,
guazen zezenetara
guztiok batian"⁷⁵.

Herriko festak direla, edo bestelako ospakizunen bat dela, aspaldidaniko aipamen aberatsak franko ditugu, nola zezena hiltzeko ikuskizunez, hala kale-etan barrena egin ohi zen sokamuturraz eta plazetako zezen bolaztatuez.

73. Arantzazun (Oñati): Migel Maiztegi Arregi. 63 urte. Goiko Benta etxea. 1998ko abenduaren 24an.

74. Juan Garmendia Larrañaga. Luis Pedro Peña Santiago: aip. lana, 81. orria.

75. Jose Mari Iparragirrenen bertsoak, Tolosan, 1855ean Lalamaren alargunaren etxean argitaratuak. Askoren artean: *Iparragirre, raíz y viento* (Iparragirre, sustraia eta haizea, argitaratze bidean).

Zezen festak direla eta dudan berririk zaharrena, 1549ko Tolosako Sanjoanetakoa da⁷⁶.

1580an, Asteasuko Udalak errotariak behartzen zituen, kontratu bitartez, San Pedroko jaietan jokatzeko idisko bana ekartzera⁷⁷. Ohar hau osatzeko, urte batzuk dirala argitaratu nuen hau ekarriko dut:

“Lege Zaharren enparantza Asteasuko herri bizitzaren bihotza da. Gure herri txikietako plazarik handienetakoa da.

Udaletxearen aldamenean, hesi txiki baten hondarrak ageri dira. Sanpedrotan izaten ziren zezenketetarako ekartzen zenazienda edukitzeko zezendegien hondarrak dira. Zezenen aurrekontua errotetako maizterrek ordaintzen zuten, udal zerga bezala, errotak udalarenak baitziren”⁷⁸.



76. Tolosako Udal Artxiboa. Akta liburua.

77. Imanol Elías Odriozola: *El toro. Símbolo de fiesta en Gipuzkoa* (Zezena. Gipuzkoan, festaren ikur). 1992. 19. orria.

78. Juan Garmendia Larrañaga: *Euskal Esku-Langintza. Artesanía Vasca*. Auñamendi bilduma. 79 zk. 1970. 29. orria.

Billabonan, 1607an, “herritarrek behi haiek zituenaren zezen bat jokatu zuten, eta eman zioten tratu txarraren ondorioz hil egin zen”⁷⁹.

Billabonatik alde egin gabe,

“aspalditik hasita, Santiago jaiak alaitzeko, herriko kalean zezenak jokatzeko ohitura izan eta jarraitu da, bai eta beste joko gozagarri batzuk egin ere; erabaki zuten, bada, aipatutako alkate, fiel eta errejidoreei ondo deritzen zezenak joka daitezela jai horretan, ongi deritzen tokian, eta musika eta zezenen gastuak Konzejuaren kontura izango direla, eta ez beste ezer”⁸⁰.

Erabaki hori XVIII. mendekoa da.



XVIII. eta XIX. mendeetan behin baino gehiagotan eman zituzten zezen festa debekatzen zuten aginduak. Oso agindu eraginkorrek ez zirela izango pentsarazten du horrek. Izan ere, herriko agintariak jabetuko ziren agindu horiek ez zirela jende askoren gustukoak eta haserrea pizten zutela, ez baitziren denak iritzi berekoak. Gaia zabal aztertu dutenek arretaz begiratu dituzte horrelako dekretuak, eta ni, nire aldetik, errepikakorra ez izaten saiatuko naiz.

79. Gipuzkoako Artxibo Orokorra. PT-111. sig. 1607. urtea, 181. eta hurr. orriak.

80. Imanol Elías Odriozola: aip. lana, 23. orria.

1768ko martxoaren 18an, Tolosako alkateak eta errejidore batzuek ahalordea eman zuten “zezenketa egiteko Errege baimenaren eskaera Madrilen negoziatzeko”⁸¹. Apirilaren 11n, Tolosako Hiri Noble eta Leial Honetako kontzeju aretoan⁸², alkateak eta errejimenduak batzarra egin zuten, “ohi duten bezala kanpaia jota”, gai honetaz eztabaidatzeko⁸³.

Espainiako Gobernuak debekatu egin zituen zezen korridak 1805ean dekretu bidez, eta 1880an haien erregelamendua onartu egin zuten Madrilen.

Gure egunetatik hurbilago, Arrasaten XIX. mendearen bukaera eta XX. mendearen hasiera aldean herrian zezen plaza zegoenean, “Santiago eguna oso seinalatua zen, zeren eguraldia Sanjoanetan baino seguruagoa zenez eta



81. Gipuzkoako Artxibo Orokorra. PT-IPT. 573. sig.

82. Tolosako Udal Artxiboa. A-1-22. Hemen jasota utzi nahi dut Tolosako Udal Artxiboan ikerlanean aritu naizenean beti izan dudala Guadalupe Larrarte artxibozainaren laguntza baliagarria eta eskuzabala. Bihotz-bihotzez eskertzen diot.

83. Jasota dudana Tolosako haragi hornikuntzari buruzko 1790eko eskritura batek ere –eta ezagutzen ditut antzeko beste batzuk, Elgoibarkoa, adibidez– zezen festa herrian oso errotua zegoela pentsarazten du.

Ikus: Koldo Lizarralde Elberdin: *Festa herrikoiak Elgoibarren*. (Elgoibarko Udalak argitaratua. 1996. 129-130. orriak) eta Gipuzkoako Artxibo Orokorra. PT-IPT. 577. sig. 1790-03-25. Pedro Osinalde eskribaua.



Santa Agedako eta Aretxabaletako bainuetxeetan bainuzaleak eta zori igar-leak egoten zirenez, arrakasta handiagoarekin egin ohi ziren nobilladak”, irakurtzen dudanez⁸⁴. Eta XX. mendearen hasieran, 1902an, debekatu zuen sokamuturra Donostiako alkateak. Azaldutakoak nahiko argi erakusten du nondik norakoa izan den gurean zezen festaren iragana. Gai honetan gogoan izan behar da komunitatearen bizitzan errotuta dauden zaletasunei dagozkien jokabideak ez direla dekretuz zokoratzen, baizik eta herritarrei ezer gutxi adierazten dietenean desagertzen direla.

Arestian esan dudanarekin zerikusia duelako, Tolosan 1936ko hasierako bilduma grafiko batean argitaratutako bi lan aipatuko ditut hemen. Bata sasoi hartan herriko alkatea zen Fidel Azurza Aranbururena da eta, bestea, Txinparta elkarteko kide batek, *txinpartero* batek, sinatua.

Herriarekiko maitasun artikulu hunkigarri batean, *Herriko Jaien Berreskuratzea (Reconquista de Fiestas Populares)* izenburua duenean, honela zioen Fidel Azurzak:

“Berez galdu diren ohitura guztiak, inork bultza eta oztoporik jarri gabetanik galdu direnak, ondo ahaztuta daude, nire ustez. Baina ez badira berez hil, orduan, ahaleginak egin behar dira berriz zuzpertzeko”.

84. Jose M. Uranga Arregui: aip. lana, 84. orria.

Tolosako sokamuturra (Soka-muturra tolosano) izenburua duen idazlanean, bestalde, *Txinparteroak* hainbat gogoeta egiten zuen antzinako kale joko honetaz eta, besteak beste, hau zioen:

“Eta sokamuturraren festa zen, garai hartan, jendearen gustukoena. Harekin gozaten zuen herri guztiak, kale guztiak lau aldeko zezen plaza bihurtuta, etxeetako atariak defentsarako eta balkoiak begiralekutzat hartuta. Gaur lehengo kale berak ditugula, Lasturko zezenak oraindik badirela, zergatik ez da festa bera egiten? (...). Eta aurki zetorren Inauteriko giroak berotuta, sokamuturra egitea erabaki genuen. Horrela sartu zen Inauterietako jaietan festa berri hori, Txinpartak berrogeita hiru urteren buruan piztuta”.

Natorren gure egunetara. Zezen festa orokorrean aztertzeko, baditugu merezimendu handiko zenbait lan, horien artean Imanol Elías eta Iñaki Azkunerrenak (*Zezenak Euskal Herrian*). Nik izendatu besterik ez ditut egingo Azpeitia, Donostia, Eibar eta Tolosako zezen plazak eta Deban, Elgoibarren eta Zestoan, besteak beste, zezenketarako prestatzen dituzten plaza historiaz beteak. Informazioa emateko xede hutsarekin eta bilketa agortzeko usterik gabe, zezenak festari ekarria egiten dion herrien zerrenda bat emango dut. Itziariko Saka baserriko sukalde abegikorrean jasoa dut⁸⁵. Aipamen hauek berez erakusten digute zezenen ikuskizuna zenbateraino onartua izan den iraganean eta den orain bizi ditugun festetan, Gipuzkoan.



85. Itziar-Debako Arriola auzoan: Asier Arrizabalaga Carrasco. 24 urte. Ignazio Arrizabalaga San Miguel. 52 urte. Aszensio Artetxe Barrenetxea. 68 urte. Itziar Artetxe Barrenetxea. 49 urte, Saka baserria. 1998ko azaroaren 13an.



Zezenak

Maiatza

Jaunaren Igokundea: Beasain, Legorreta.

Mendekostea: Bergara.

Ekaina

Corpus Christi: Anoeta.

24 - *San Joan Bataiatzailea:* Andoain, Altzola (Elgoibar), Arrasate, Eibar, Hernani, Olaberria, Segura, Tolosa.

26 - *San Pelaio:* Zarautz.

29 - *San Pedro:* Elgeta, Lasarte, Orio, Pasaia San Pedro.

30 - *San Martzial:* Irun.

Uztaila

7 - *San Fermin:* Pasai Antxo.

16 - *Karmengo Ama:* Alegia, Trintxerpe, Añorga (Donostia), Arroa (Zestoa).

22 - *Santa Magdalena:* Mutriku, Errenteria.

25 - *Done Jakue (Santiago):* Astigarraga, Billabona, Mendaro, Pasai Donibane, Segura, Soraluze.

26 - *Santa Ana:* Ordizia.

Abuztua

1. *igandea*: Itziar (Deba).
- 3 - *San Eztebe*: Oiartzun.
- 6 - *San Salvatore*: Getaria.
- 10 - *San Lorentzo*: Berastegi (herri honetan Udalak, erosita, hiru zezen beretzat hartzen zituen).
- 15 - *Andre Mariaren Jasokundea*: Azkoitia, Donostia, Itsasondo, Zumarraga.
- 16 - *San Roke*: Aretxabaleta, Deba, Soraluze.
- 24 - *San Bartolome*: Elgoibar, Ibarra, Zegama.
- 28 - *San Agustin*: Berrobi.

Iraila

- 8 - *Andre Mariaren Jaiotza*: Gatzaga.
- 9 eta 10 - Hondarribia, Zestoa.
- 10 - *San Nikolas Tolentinokoa*: Lastur (Deba).
- 17 - *San Martin Igokundekoa*: Bergara.
3. *igandea*: Urretxu. Santa Anastasiaren gorpuzkiak iritsi zireneko oroitzua. (I. Lina-zasororen *Villarreal de Urretxua. Ayer y hoy -Urretxu. Atzo eta gaur.-* liburutik hartutako erreferentzia).
- 29 - *San Migel*: Oñati, Urnieta.

*“Zezena dator arkupetatik
Txinparta daiola adarretatik
Zinbuluka ta zanbuluka ta
Jendian artetik.*

*Zezenak dira
Beltz-beltzak dira
Arrapatzen bazaitu,
Arrapatzen bazaitu,
Bertan bertan
Ilko zaitu”.*

San Simon ta Juda, udaa juan ta negua eldu da (urriaren 28an)⁸⁶.

⁸⁶. Manuel Lekuonak Euskal Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkarian (RIEVEN) erabilitako grafiarekin. XVI. liburukia, 470. orria.